

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERREGELAMENDUA



AURKIBIDEA

ZIOEN AZALPENA.

I. TITULUA.–Xedapen orokorrak.

1. artikulua.–Herritarren partaidetzaren kontzeptua.
2. artikulua.–Arautegi honen xedea.
3. artikulua.–Aplikazio-eremu subjektiboa.

II. TITULUA.–Herritarren partaidetzarako organoak.

I. KAPITULUA.–Herritarren partaidetzarako organoei buruzko xedapen orokorrak.

4. artikulua.–Herritarren Partaidetzarako Organoak.
5. artikulua.–Herritarren Partaidetzarako Organoen sorrera eta arautzea.
6. artikulua.–Herritarren Partaidetzarako Organoen funtzioak.
7. artikulua.–Herritarren Partaidetzarako Organoen osaera eta funtzionamendu orokorra.
8. artikulua.–Herritarren Partaidetzarako Organoen sostengurako tresnak: Lantaldeak eta Batzorde Iraunkorra.
9. artikulua.–Partaidetza Organoen sostengurako bitartekoak eta baliabideak.
10. artikulua.–Online parte hartzeko gunea.
11. artikulua.–Partaidetzarako Organoen jarraipena, gainbegiratzea eta ebaluazioa.
12. artikulua.–Herritarren Partaidetzarako Organoen deuseztatzea.

II. KAPITULUA.–Partaidetzarako organoak.

1. ATALA.–Hirigunea-Hiriko Gizarte Kontseilua.

13. artikulua.–Izaera juridikoa.
14. artikulua.–Helburuak eta funtzioak.
15. artikulua.–Osaera eta egitura.

2. ATALA.–Auzogunea-Lurraldeko Partaidetza Organoa.

16. artikulua.–Izaera juridikoa.
17. artikulua.–Helburuak eta funtzioak.
18. artikulua.–Osaera eta egitura.

3. ATALA.–Elkargunea-Sektoreko Partaidetza Organoa.

19. artikulua.–Izaera juridikoa.
20. artikulua.–Helburuak eta funtzioak.

III. KAPITULUA.–Observatorio-Behatokia.

21. artikulua.–Izaera juridikoa.
22. artikulua.–Helburuak eta funtzioak.

IV. KAPITULUA.–Demokrazia Parte-Hartzailearen Tokiko Behatokia (DPTB)

23. artikulua.–Izaera juridikoa.
24. artikulua.–Helburuak eta funtzioak.

V. KAPITULUA.–Elkarrizketa eta partaidetzako hitzarmenak eta akordioak.

25. artikulua.–Izaera juridikoa eta osaera.
26. artikulua.– Hitzarmenaren garapena.
27. artikulua.–Gune birtuala.

III. TITULUA.–Partaidetza-prozesuak.

I. KAPITULUA.–Xedapen orokorrak.

28. artikulua.–Partaidetza-prozesuen helburuen eta mugen kontzeptua.
29. artikulua.–Partaidetza-prozesuen sustapena.
30. artikulua.–Partaidetza-prozesuaren talde bultzatzailea: funtzioak eta eraketa.

II. KAPITULUA.–Eskabidea, diseinua eta onarpena.

31. artikulua.–Partaidetza-prozesu baten eskabide-, diseinu- eta onarpen-prozesua.
32. artikulua.–Partaidetza-prozesuen eskabidearen aurkezpena.
33. artikulua.–Partaidetza-prozesuen informazioa, diseinua eta komunikazio-plana.
34. artikulua.–Partaidetza-prozesuen onarpena eta deialdia.

III. KAPITULUA.–Partaidetza-prozesuen garapena.

35. artikulua.–Tresnak eta helburuak partaidetza-prozesuaren garapenean.
36. artikulua.–Partaidetza-prozesuetan parte hartzera deitutako pertsonak.
37. artikulua.–Partaidetza-prozesuetako eztabaida eta aurrez aurreko lana.
38. artikulua.–Partaidetzaprosesuetako eztabaida eta aurrez aurreko lana, plataforma digitalaren bitartez.
39. artikulua.–Partaidetza-prozesuen emaitzen txostenak eta azken txostenak.

IV. KAPITULUA.–Emaitza eta jarraipena.

40. artikulua.–Partaidetza-prozesuaren itzulketa.
41. artikulua.–Partaidetza-prozesuaren ebaluazioa.
42. artikulua.–Partaidetza-prozesu bat eduki duten udal-jarduketaren exekuzioaren jarraipena.
43. artikulua.–Partaidetza-prozesuen Jarraipen Batzordea.
44. artikulua.–Jarraipen Batzordearen osaera.
45. artikulua.–Kexa Demokrazia Parte-hartzailearen Tokiko Behatokian (DPTB)
46. artikulua.–Gune birtuala.

IV. TITULUA.–Herritarren eskubideak.

I. KAPITULUA.–Eskaria egiteko eskubidea.

47. artikulua.–Eskaria egiteko eskubidea.

II. KAPITULUA.–Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak.

48. artikulua.–Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak egiteko eskubidea.

III. KAPITULUA.–Jendaurreko entzunaldiak.

49. artikulua.–Jendaurreko entzunaldiak.
50. artikulua.–Jendaurreko entzunaldien funtzionamendua.

IV. KAPITULUA.–Parte hartzea osoko bilkuran eta udal-batzordeetan.

51. artikulua.–Osoko Bilkuran eta Udal-batzordeetan parte hartzeko eskubidea.

V. KAPITULUA.–Herritarren proposamena.

52. artikulua.–Herritarren proposamena.
53. artikulua.–Herritarren proposamenen aurkezpena.
54. artikulua.–Proposamenaren sostenguen harrera.
55. artikulua.–Proposamenaren tramitazioa.

VI. KAPITULUA.–Herri-ekimena.

56. artikulua.–Herri-ekimenaren kontzeptua.
57. artikulua.–Herri-ekimeneen xedea.
58. artikulua.–Herri-ekimenaren Sustapen Batzordea.
59. artikulua.–Herri-ekimen bat izapidetzeko behar diren sinadurak.
60. artikulua.–Eskabidearen eta sinadura-orrien aurkezpena.
61. artikulua.–Eskabidearen egiaztapena eta sinadura-orrien baliozkotzea.
62. artikulua.–Sinaduren bilketa, autentifikazioa eta aurkezpena.
63. artikulua.–Herri-ekimeneen ondoreak.

VII. KAPITULUA.–Herri-kontsulta.

64. artikulua.–Herri-kontsultaren kontzeptua.
65. artikulua.–Kontsultaren emaitzen aldarrikapena eta publikazioa.
66. artikulua.–Herri-kontsulten bateratzea.

VIII. KAPITULUA.–Beste kontsulta batzuk.

67. artikulua.–Beste kontsulta modalitate batzuk.

- 68. artikulua.–Sostengu modalitateak.
- 69. artikulua.–Sostenguen kontaketa.
- 70. artikulua.–Gune birtuala.

IX. KAPITULUA.–Aurrekontu partizipatiboak.

- 71. artikulua.–Aurrekontu partizipatiboak.

V. TITULUA.–Lankidetzaren publiko-soziala.

I. KAPITULUA.–Herritarren eta udalaren arteko lankidetzaren.

- 72. artikulua.–Lankidetzaren publiko-sozialaren kontzeptua eta helburuak.
- 73. artikulua.–Lankidetzaren publiko-sozialaren definizioak.
- 74. artikulua.–Lankidetzaren publiko-sozialaren printzipio orokorrak.
- 75. artikulua.–Lankidetzaren publiko-sozialaren sustapena eta bertan parte hartzea.
- 76. artikulua.–Irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta kolektiboak.
- 77. artikulua.–Lankidetzaren publiko-sozialaren esparrua.
- 78. artikulua.–Lankidetzaren publiko-sozialerako herritarren erakundeen udal-errola.
- 79. artikulua.–Lankidetzaren publiko-sozialerako tresnak.

II. KAPITULUA.–Lankidetzaren publiko-sozialeko jarduketak.

- 80. artikulua.–Lankidetzaren publiko-sozialeko jarduketak.
- 81. artikulua.–Lankidetzaren publiko-sozialeko jarduketetarako proposamenak hautatzeko prozedura.
- 82. artikulua.–Lankidetzaren publiko-soziala formalizatzeko prozedura.

III. KAPITULUA.–Gizarte-berrikuntzaren sustapena.

- 83. artikulua.–Gizarte-berrikuntzaren sustapena.
- 84. artikulua.–Sariak gizarte-berrikuntzari.
- 85. artikulua.–Gizarte-berrikuntzarako proiektuen garapena.

IV. KAPITULUA.–Sostengua partaidetzari, herritarren erakundeei eta herritar aktiboiei.

LEHEN ATALA.–Sostengua herritarren erakundeei eta herritar aktiboiei.

- 86. artikulua.–Sostengua herritarren erakundeei eta herritar aktiboiei.

BIGARREN ATALA.–Espazioen kudeaketa.

- 87. artikulua.–Lankidetzaren publiko-sozialeko jardueretarako espazioen lagapena: Esparrua.
- 88. artikulua.–Araubide Juridikoa.
- 89. artikulua.–Lankidetzaren publiko-sozialeko jardueretarako erabiliko diren lokal, espazio eta eraikin publikoen zerrenda.
- 90. artikulua.–Erabilera-baimenen edo lagapenen xedeak.
- 91. artikulua.–Espazioen lagapenera bil daitezkeen erakundeak.
- 92. artikulua.–Esleitzeko irizpideak.
- 93. artikulua.–Esleitzeko prozedura.
- 94. artikulua.–Erabilera-baimenaren edo lagapenaren baldintzak.
- 95. artikulua.–Erabilerarako baldintza orokorrak.
- 96. artikulua.–Baimentzen ez diren jarduerak.
- 97. artikulua.–Harreraren formalizazioa.
- 98. artikulua.–Lagapen edo baimenaren jarraipena.

VI. KAPITULUA.–Partaidetzarako informazioa eta komunikazioa.

LEHEN ATALA.–Herritarren partaidetzarako informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.

- 99. artikulua.–Webgunea, Sare Sozialak eta Herritarren Partaidetzako Alorraren plataforma digitala.
- 100. artikulua.–Plataforma digitalerako sarbidea.

VII. KAPITULUA.–Herritarren erakundeen eta herritar aktiboien udal-errola.

LEHEN ATALA.–Herritarren Erakundeen eta Kolektiboen Udal Errola.

- 101. artikulua.–Herritarren Erakundeen Udal Erroldaren helburuak.
- 102. artikulua.–Izena eman dezaketen elkarteak edo erakundeak.
- 103. artikulua.–Eskabidearen ebazpena.

104. artikulua.—Herritarren erakundeen datuak eta egiaztapenari buruzkoak.

105. artikulua.—Herritarren Erakundeen Udal Erroldan izena emandako erakundeen eskubideak eta betebeharrak.

BIGARREN ATALA.—Herritar Aktiboen eta Kolektiboen Udal Erregistroa.

106. artikulua.—Herritar Aktiboen eta Kolektiboen Udal Erregistroa.

107. artikulua.—Herritar Aktiboen eta Kolektiboen Udal Erregistroaren helburuak.

108. artikulua.—Izena eman dezaketen pertsonak.

109. artikulua.—Izena emateko eskabidea.

VIII. KAPITULUA.—Udalerriko onura publikoko erakundeen adierazpena.

110. artikulua.—Udalerriko Onura Publikoko Erakundea.

111. artikulua.—Adierazpen-prozedura.

112. artikulua.—Udalerriko Onura Publikoko Erakundearen aitortza bidezkoa den baloratzeko oinarritzko irizpideak.

113. artikulua.—Instrukzioa.

114. artikulua.—Eskubideak.

115. artikulua.—Betebeharrak.

116. artikulua.—Udalerriko Onura Publikoko Erakunde izaera mantentzeko betebeharrak eta baliogabetzeko zergatiak.

117. artikulua.—Udalerriko Onura Publikoko Erakundearen adierazpena publiko egitea.

XEDAPEN GEHIGARRIA.

XEDAPEN IRAGANKORRA.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

AZKEN XEDAPENA.

ZIOEN AZALPENA

Espainiako 1978ko Konstituzioan aitortutako parte hartzeko oinarrizko eskubideak hainbat alderdi biltzen ditu, sufragio unibertsalaren eta hautespen aske, berdin, zuzeneko eta isilekoaren bidez Estatuko instituzioetan jardungo duten pertsonak hautatzea baino harago doazenak, eta gai publikoetan zuzenean parte hartzeko eskubidea aitortzen die herritarrei.

Parte hartzeko eskubidea baliatzeko berme gisa, Konstituzioak administrazio publikoentzako agindu bat jasotzen du, berme horren inguruan jarrera proaktiboa izan dezaten. Horretarako, parte-hartze handienerako egokiak diren kanalak eta tresnak sustatzeko eskatzen die; hura zailtzen edo eragozten duten oztopoak kentzeko; eta bitarteko bereziak ezartzeko, beren egoera pertsonal edo sozialengatik erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko zailtasunak dituzten pertsonengana iritsi ahal izateko.

Era horretan, parte hartzeko eskubidea ezinbesteko baldintza dugu osoko gobernagarritasun demokratikora heltzeko; izan ere, pertsona guztiek beren bizimoduaren eta ingurunearen diseinuan eta eraikuntzan parte hartzeko eta protagonista izateko duten eskubidea baliatzea baitakar. Eskubide hori erabat baliatzeko, ez da nahikoa hura bermatzea: erreminta egokiak eskatzen ditu eraginkortasun osoz aurrera eraman ahal izateko eta dauden kanalen erabilpena ez dadila egon, batez ere, ekintza instituzionalaren mende, baizik eta herri-ekimen autonomo, aske eta pluralak garrantzizko pisua izan dezala aipatutako prozesu horietan.

Iruñean, gizarte zibila eratzen eta osatzen duten eragileen pluraltasunak (elkartek, kolektiboak eta beste) indarra hartu du urteen joanean eta, gaur egun, 1.400dik gora dira hirian era bateko eta besteko ekintzak aurrera ateratzen dituzten erakunde aktiboak. Gizarte-ehun horrek eremu guztietan –sozialean, ekonomikoetan, hezkuntzakoetan, etab.– duen garrantzia funtsezkoa da gure hiriarentzat.

Iruñeko azkeneko Herritarren Partaidetzarako Erregelamendua 2005ean onartu zen eta, orduetik hark gobernatu eta gidatu du hiriko parte-hartze prozesuen garapena. Gaur egun, Iruñeko Udalak bere gain hartu du herritarren partaidetza sustatzeko eta bideratzeko erronka eta, urrats berriak eginik, parte-hartzea aurrera eramateko egoera eta erreminta berriak hartu ditu bere gain. Horretarako, erregelamendu berri bat egitea erabaki du, orain arte egon diren mekanismoak eta erremintak eguneratu, aitzineratu eta garatuko dituena, uste osoa baitu herritarren partaidetza dela udal-administrazioa inspiratzen duen printzipio nagusietako bat. Gure herritarren heldutasun parte-hartzailearen neurria egindako testua da, eta, aldi berean, udal administrazioarekiko harreman modu berriak biltzen ditu, bereziki teknologia berrien erabilerari dagokion guztian.

Erregelamendu honen xedea, beraz, Iruñeko herritarrek udalerriko bizitzan eta kudeaketan parte hartzeko dituzten moduak, bitartekoak eta prozedurak arautzea da, bai banaka, bai herritarrak biltzen dituzten elkarte, talde eta erakundeen bitartez. Lortu nahi dena da parte har dezatela erabakiak hartzeko prozesuen definizioan eta garapenean, bai eta haiengatik eta haientzat dauden udal-zerbitzuen funtzionamenduan ere, eta, arrazoi horregatik, haien beharrezan eta eskaeren arabera antolatu behar baitute, efizientzian eta eraginkortasunean hobetzeko.

Era berean, erregelamendu hau lantzeko, parte-hartze praktika berritzaileenak –horietako zenbait Espainiako beste hiri batzuetan inplementatzen hasiak daude– erabiltzen dituzten gobernu lokalen herritarren partaidetzarako erregelamenduak eta arauak kontsultatu dira, bai eta, jakina, Iruñean bertan ditugun arloko arau-aurrekariak ere.

Urriaren 2ko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 129. artikuluan agindutakoa betetzeko, berariaz jasoarazi da erregulazio hau premia- eta efikazia-printzipioetan oinarritzen dela eta erregelamendu honek lortu nahi duen interes orokorra

herritarrek udalerriko arazo eta gai publikoetan parte-hartzea erraztea dela; era horretan, gizartearen eskaera eta Konstituzioaren 9.2 artikuluan jasotako agindua betetzen da. Lortu nahi diren helburuak erdiesteko behar den erregelamendua da, eta kanalak eta bideak hobetzen ditu horiek baliatzeko, teknologia berriak onartzen eta integratzen baititu herritarren partaidetzan. Gainera, arau hau koherentea da egun indarrean dagoen ordenamendu juridikoarekin, eta arau-esparru egonkorra, aurrean daitekeena, integratua eta egiazkoa sortzen du.

Erregelamendu honen edukia prestatzeko, eta gardentasun printzipioak xedatzen duenarekin bat etorriki, parte-hartze prozesu publiko bat ireki zen, eta hainbat ekitalditarako deialdia egin zen hiriko auzoetan. Ekitaldi horien asmoa eta xedea, hain zuzen ere, herritarren eta mota guztietako elkarte eta kolektiboen ekarpenak eta ideiak biltzea zen. Azkenik, arau efizientea eta eraginkorra da; Erregelamendua aplikatzearen ondorio gisa sor daitezkeen gastuak arlo honetan aurrera eramaten den jarduketa arruntaren barruan sartzen dira, eta haiek arautzeak erraztu egiten du inplikaturako administrazio-zerbitzuen antolakuntza.

Erregelamendu hau osatzen duten bost tituluetan honako hauei buruzko gai orokorrak arautzen dira: herritarren partaidetza, haien zerbitzuan dauden partaidetza-organoak, parte-hartze prozesuen konfigurazioa eta garapena, betebeharren zehaztapena eta kontsultak aurrera eramateko prozedura, herri-ekimenak eta proposamenak, eta, amaitzeko, azken titulua, lankidetzako publiko-sozialaren hainbat alderdi arautzen dituena.

I. tituluan Erregelamenduaren edukiari oinarria emanen dioten xedapen orokorrak jasotzen dira, hala nola herritarren partaidetzaren kontzeptua, bere xedea eta arauaren aplikazio-eremu subjektiboa.

II. tituluak herritarren zerbitzuan dauden herritarren partaidetzako organoetan jartzen du arreta. Guztiek partekatzen dituzten hainbat gai komunen azalpena eman ondoren, dauden organismoen izaera juridikoa, helburuak eta funtzioak, eta osaera eta egitura zehazten ditu, hau da, hauena: Hirigunea-Hiriko Gizarte Kontseilua; Auzoguneak-Lurraldeko Partaidetza Organoak; Elkarguneak-Sektoreko Partaidetza Organoak, eta, azkenik, Behatokiak eta Demokrazia Parte-hartzailearen Tokiko Behatokia erregulatzen edo arautzen ditu.

II. tituluan, sor daitezkeen Elkarrizketa eta Partaidetzako Hitzarmenak eta Akordioak ere aipatzen dira.

Parte-hartze prozesuak III. tituluan tratatzen dira; titulu horrek arautzen ditu bai guztiei dagozkien gai orokor eta erkideak, eta bai esandako prozesuen eskabide-, diseinu- eta onarpen-prozedurak, garapena eta emaitzak neurtzeko eta jarraipena egiteko mekanismoak.

IV. tituluak kontsulta-, ekimen- eta herritarren proposamen-prozesuak arautzen ditu, bai eta eskaria egiteko eskubidea, kexa, erreklamazio eta iradokizunen aurkezpena eta beste kontsulta batzuk ere.

Azkenik, V. titulua lankidetzako publiko-sozialaren eremuari eta herritarren eta Udalaren arteko elkarlanari buruz da. Titulu honetan, lankidetzako publiko-sozialeko jarduketak adierazteaz gainera, beste hauek aipatzen dira: Udalak gizarte-berrikuntza sustatzeko duen konpromisoa, partaidetzaren, herritarren erakundearen eta herritar aktiboen sostengua, beste batzuen artean, informazio- eta laguntza-zerbitzuak edo udal-eroldak sortuz, edo dirulaguntzetarako, hitzarmenatarako eta espazioak kudeatzeko deialdiak eginez. Erregelamenduak, bere azken arau-xedapenetan, erakundeek udal-onura publikoaren aitortza nola lor dezaketen arautzen du.

Amaitzeko, Erregelamendu honek xedapen gehigarri bat, iragankor bat, indargabetzaile bat eta azken xedapen bat ditu. Xedapen Gehigarrian orain dauden partaidetza-organoen erregulazioari egiten zaio erreferentzia. Xedapen Iragankorrean jasotzen da orain arte indarrean dagoen Herritarren Erakundearen Erregistroan izena emanda dauden erakundeek egoera horretan jarraituko dutela Erregelamendu honek eratzen duen Udal Erakundearen Erroldan. Urtebeteko epea izanen dute

datuak eguneratzeko. Xedapen Indargabetzaileak, bestalde, testu honek ordeztu duen Partaidetza Erregelamendua indargabetzen du. Azken Xedapenak adierazten du testua zein epetan jarriko den indarrean.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua.–Herritarren partaidetzaren kontzeptua.

Udaleko politika publikoen definizioan, proposamenean, exekuzioan eta balorazioan herritarrek duten inplikazio ordenatuari, dela banaka, dela elkarte gisa edo nortasun juridikorik gabeko kolektibo gisa, deitzen zaio horrela; era horretan, hirian dauden interesen pluraltasuna ordezkatzeko da.

2. artikulua.–Erregelamendu honen xedea.

Herritarren Partaidetzarako Erregelamendu honen xedea da Iruñeko herritarren partaidetzarako moduak, bitartekoak, organoak, prozedurak eta kanalak edo bideak arautzea, haiek banaka, edo taldeetan bildurik –irabazi-asmorik gabeko erakundeen bitartez, beste erakunde batzuetan edota nortasun juridikorik gabeko kolektibo gisa–, azkenean, pertsona horiek erabateko inplikazioa izan dezaten Iruñeko politika publikoetan.

Erregelamendu honetan jasotako xedapenen helburua da herritarrek parte hartzeko duten funtsezko eskubidea bermatzea, sustatzea, erraztea eta eraginkortasunez baliatzea. Iruñeko Udalak berriaz eta espresuki konpromisoa hartzen du, helburu horren barruan, arreta berezia jarriko zaiela interes unibertsal eta erkideei, nola diren pobrezia desagerraraztea, osasuna, elkartasuna, hezkuntza, desabantaila sozialean dauden kolektiboen gizarteratzea, eta lankidetzeta eta garapena, betiere gure udalerriko benetako beharrezanean erantzuteko.

3. artikulua.–Aplikazio-eremu subjektiboa.

Partaidetzarako Erregelamendu honen aplikazio-eremuan sartzen dira herritar guztiak, elkarteetan egon edo ez, eta, Iruñeko udal-barrutian presentzia izanik, nortasun juridikoa duten edo ez duten herritarren erakunde oro, baldin eta, ondorengo artikuluetan xedatutakoaren arabera, zilegitasuna badute bertan arautzen diren prozesu, partaidetza-organo, edo kontsulta, kanal edo herritarren partaidetza modalitateetan parte hartzeko.

II. TITULUA

Herritarren partaidetzarako organoak

I. KAPITULUA

Herritarren partaidetzarako organoei buruzko xedapen orokorrak

4. artikulua.–Herritarren partaidetzarako organoak.

1. Herritarren partaidetzarako organoak tokiko antolakundearen organo osagarriak dira, eta herritarren partaidetza bideratzen, errazten eta sustatzen dute udalerrinari dagozkion arazoak kudeaketan.

Parte-hartzea zerbitzu, plan, programa, proiektu eta udalaren jarduketara zehatzei buruz izaten da.

2. Partaidetzarako organoak izan daitezke:

a) Lurralde-eremukoak edo sektore-eremukoak.

Lurralde-eremukoak izanen dira, baldin eta beren funtzioak hiriarekin, oro har, edo haren zati zehatz eta mugatu batekin zerikusia badute: auzo bat edo gehiagorekin, edo gunee batekin.

Sektore-eremukoak izanen dira, berriz, beren funtzioak udaleko alor jakin batekin, udal jarduketaren arlo funtzional batekin, edota udal-ekipamendu edo zerbitzuren batekin zerikusia dutenak badira. Sektore-eremuko partaidetza-organoek beren funtzioak gauzatu behar dituzten udal-ekintzako segmentua identifikatzea ahalbidetzen duen izendapena eduki behar dute.

3. Iruñeko Udalak erregelamendu honen bitartez izanen dituen partaidetzarako organoak honako hauek dira: Hirigunea-Hiriko Gizarte Kontseilua, Auzogunea-Lurraldeko Partaidetza Organoa, Elkargunea-Sektoreko Partaidetza Organoa.

a) Hirigunea-Hiriko Gizarte Kontseilua: parte-hartzea herritarren eta hiriko erakunde eta entitateen ordezkari gisa jardungo duten pertsona kopuru zehatz batera mugatuta dago. Hirigunea edo Hiriko Gizarte Kontseilua II. titulu honetako II. kapituluko lehen atalean ezarritakoaren arabera arautuko da.

b) Auzoguneak-Lurraldeko partaidetza organoak: titulu honetako II. kapituluko bigarren atalean arautzen dira, eta bi partaidetza-organo izanen dituzte, auzo-eztabaidagunea eta auzo-kontseilua.

c) Elkarguneak-Sektoreko Partaidetza Organoak: titulu honetako II. kapituluko hirugarren atalean arautzen dira.

Bai Auzoguneetan, bai Elkarguneetan parte-hartzea irekita dago herritar guztiei eta lurralde edo sektore bateko erakunde eta entitate guztiei.

5. artikulua.–Herritarren Partaidetzarako Organoen sorrera eta arautzea.

1. Partaidetzarako organoen eraketa bai herri-ekimenaren bidez (Erregelamendu honetako IV. tituluko IV. kapituluan jasota dagoen herri-ekimenean oinarritutako prozeduraren arabera) eta bai Udalaren ekimena aintzat hartuta erabaki daiteke.

Eratu baino lehen, organoaren egokitasunari buruzko txosten bat eta zenbait gomendio eskatuko zaizkio Iruñeko Udalean Herritarren Partaidetzan eskumena duen alorrari eta Demokrazia Parte-hartzailearen Tokiko Behatokiari (DPTB).

2. «Udalaren osoko bilkurari dagokio partaidetzarako organoak eta haien funtzionamenduko erregelamenduak sortzea».

3. Organoa sortzeko akordioak eta Herritarren Partaidetzarako Organoaren Funtzionamenduko Erregelamendu Espezifikokoak honako hauek arautuko dituzte, beste batzuen artean:

a) Partaidetzarako organo gisa izanen duen izendapena, erregelamendu honek arautzen dituen tipologiaren arabera.

b) Bere jarduera-eremua eta -xedeak.

c) Bere jomuga edo helburuak.

d) Zer plan, proiektu, zerbitzu edo udal-jarduketaren gainean esku hartuko duen.

e) Administrazioan nola txertatuko den edo zer mendekotasun hierarkiko izanen duen.

f) Partaidetzarako organoaren osaera, kideen eskubideak, betebeharrak dituzten eginkizun espezifikokoak.

g) Oinarrizko funtzionamendu-arauak: Deialdiak, egitura, bilkurak egitea, erabakiak zer eratan hartuko diren, txostenak nola emanen diren eta formulatzen zaizkion kontsultei buruzko iritziak.

i) Partaidetzarako organoaren iraupena.

j) Desegiteko zergatiak eta modua.

k) Beren jarduerak eta eskumenak gauzatzeko eskura dauden baliabideak.

4. Bestalde, partaidetzarako organoek beren barne-jarduerako irizpide propioak onar ditzakete, Udalaren osoko bilkuran onartutako Partaidetzarako Erregelamenduaren eta Herritarren Partaidetzarako Organoen Funtzionamenduko Erregelamendu Espezifikoaren osagarriak izanen direnak.

6. artikulua.–Herritarren Partaidetzarako Organoen funtzioak.

Herritarren partaidetzarako organoek jarduketa publikoetan egiten dituzten ekarpenak kideen arteko eztabaidaren bitartez gauzatzen dira, eta zerrendaturik eta mugarik gabe era hauetan adierazten dira:

- a) Partaidetzarako organoaren eremuari eragiten dion edozein udal-jarduketari buruzko informazioa.
- b) Jarduketa publiko jakin bat eskatzen duten proposamenak.
- c) Jada landutako jarduketa publikoren bati buruzko aldaketak edo eragozpen-bideak.
- d) Jarduketa-proiektuei edo jada gauzatutako jarduketei buruzko txostenak edo irizpenak egitea, hala bere ekimenez nola Udalak berak eskatuta.
- e) Lankidetzan, jarduketaren bat gauzatzean, zeinari koprodukzioa deituko zaion.
- f) Parte-hartze prozesuen sustapena.

7. artikulua.–Herritarren Partaidetzarako Organoen osaera eta funtzionamendu orokorra.

1. Partaidetzarako organoen osaera eta funtzionamendua Herritarren Partaidetzako Organo bakoitzaren Funtzionamenduko Erregelamendu Espezifikoan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

2. Ordezkaritza-organoetako kideen hautaketa pluraltasun- eta dibertsitate-printzipioak aintzat hartuta eginen da, betiere, aukera zabalena errazten dela. Ahal izatera, gainera, osaera parekidea izanen du generoari dagokionez, betiere, bere izaerarekin inkongruentea ez bada.

3. Ezinbestean, Udalarekin zinegotzi, zuzendari edo teknikari gisara loturarik ez duten pertsonak izanen ditu.

4. Honako hauek osatuko dituzte partaidetzarako organoak:

- a) Lehendakaritza, alkateari edo hark eskuordetzen duen zinegotziari dagokio.
- b) Lehendakariordetza partaidetzarako organoaren eratze-saioan hautatuko da organoa osatzen duten pertsonen artean.
- c) Idazkaritza, berriz, Osoko Bilkurako Idazkari Nagusiaren edo hark eskuordetzen duen udal-teknikariaren ardura izanen da.
- d) Herritarren Partaidetzako udal-teknikariak, herritarren partaidetzarako organo bakoitzaren esparruko eta jarduketa-xedeko udal-mailako eta udalaz gaindiko teknikariak.
- e) Herritar Antolatuak, kasu bakoitzeko organoaren esparruko eta jarduketa-xedeko elkarte eta erakundeetako pertsonak.
- e) Herritar Aktiboak edo elkarteetan ez dauden pertsonak.
- f) Aurrekoetz gainera, ordezkariak duten partaidetza-organo eta -espazioek honako hau izan beharko dute: -Udaleko udal-talde bakoitzak izendatutako ordezkari bat.

Kasu guztietan, zinegotzien eta udal-teknikarien ordezkariak txikiagoa izanen da kuantitatiboki herritarrena baino.

5. Partaidetza-organoaren bilkura bakoitzean zehaztuko dira eztabaidaren xede diren arloak, udalak proposatuta eta/edo kideek proposatuta.

Kideek proposatuta zehazten badira, gai-zerrendan sartu nahi diren puntuen proposamenak bilkuraren eguna baino bi egun lehenago, gutxienez, helarazi behar dira organoaren Idazkaritzara.

Puntuak sartzeko eskabidea onartuko ez balitz, pertsona horrek eska dezake partaidetza-organoaren bileran gaiari buruz mintzatzea, eta orduan ere ez bada egokitzat jotzen, kexa aurkez dezake Demokrazia Parte-hartzailearen Tokiko Behategian (DPTB), Erregelamendu honen II. tituluko V. kapituluaren araututa dagoen bezala.

6. Partaidetza-organoen txostenak eta gomendioak publikoak izanen dira, eta izaera aholku-emailea ere izanen dute ebazteko eskumena duten udal organoentzat.

Adostutako txostenak eta gomendioak dagozkien udal alorretara igorriko dira eta, haiek beharrezko txostenak egin ostean, eskumena duten gobernu-organoetara bidaliko dituzte, haiek erabaki dezaten.

8. artikulua.–Herritarren Partaidetzarako Organoen sostengurako tresnak:

Hobeto funtziona dezaten, partaidetzarako organoek lantaldeak eta/edo batzorde iraunkorrak sortu ahalko dituzte.

Partaidetza Organoaren erregelamenduak arautuko ditu Partaidetza Organoen sostengurako tresnen antolaketa, osaera, eginkizunak eta funtzionamendua.

8.1. Partaidetza Organoetako Lantaldeak.

1. Lantaldeak dagokion partaidetza-organoaren lurralde-eremuari buruzko azterketak, gogoetak eta proposamenak egiteko espazioak dira. Lantaldearen garapena eta egiten dituen aurrerapenak, maiztasun baten arabera, dagokion partaidetza-organoaren batzarrerara lekualdatuko dira.

2. Talde horiek izan daitezke izaera puntualekoak (ezarritako maiztasun batekin) edota iraunkorrak (denboran mantentzen badira). Gaiarekiko interesa duten pertsonak osatuko dituzte, gehienak, dagokion partaidetza-organoetako partaideak.

3. Lantalde bakoitzean erabakiko da bilkuren maiztasuna, deialdia eta lanerako egitura.

4. Aipatutako lantaldeen deialdi guztiak eta haietan sortutako dokumentuak Herritarren Partaidetzarako plataforma digitalean eta/edo udal webgunean argitaratuko dira.

8.2. Batzorde Iraunkorra.

1. Partaidetza Organoek Batzorde Iraunkor bat izan dezakete batzarrean hala erabakitzen den kasuetan, eta bigarren bilkuran erabakia berresten bada.

2. Batzorde Iraunkorraren eginkizuna partaidetza-organoaren helburuak lortzeko beharrezkoak diren lanak koordinatzea, antolatzea eta bultzatzea izanen da.

3. Honako hauek osatuko dute Batzorde Iraunkorra: Lehendakaritza, Idazkaritza, Herritarren Partaidetzako teknikari erreferentea eta gainerako partaideen gehiengoaren ordezkaritza.

9. artikulua.–Partaidetza Organoen sostengurako bitartekoak eta baliabideak.

1. Beren eginkizunak ahalik eta ongien bete ditzaten, partaidetza-organoek behar dituzten baliabide ekonomikoak, materialak eta pertsonalekoak jarriko dizkie eskura Partaidetzako Alorrak, Udalak ezarritako aurrekontu- eta antolakuntza-arauekin bat.

2. Herritarren Partaidetzako Alorra lankide izanen da, eta sostengua emanen du partaidetza-organoen bultzada-, antolaketa-, deialdi- eta arreta-zereginetan, eta partaidetza-organo horietan parte hartzen duten pertsona guztien arteko eztabaida eta parte-hartzea bermatuko duten metodologiak erabilpena proposatuko du.

3. Baliabideak Herritarren Partaidetzarako plataforma digitalean eztabaidatu, eta bertatik kudeatuko dira, plataformaren trazabilitateak kudeaketaren gardentasuna bermatzen duela.

10. artikulua.–On line parte hartzeko gunea.

1. Partaidetza-organoek beren isla izanen dute Herritarren Partaidetzarako plataforma digitalean. Espazio hori iraunkorra izanen da herritarren partaidetzarako organoak irauten duen bitartean, hura osatzen duten pertsonen eta parte hartu nahi duten herritarren arteko eztabaida eta informazio-trukerako erabil dadin, zereginen segimendua egin ahal izateko, eta aurrez aurreko bilera batetik besterako tartetan informazio-trukea errazteko.

Partaidetza-organoa amaitzen den kasuan, bere espazioa izanen du Herritarren Partaidetzarako plataforma digitalean, haren garapena eta bilakaera zein izan zen jakiteko.

2. Behar diren kanalak prestatu eta gaituko dira, gizarte-sareen bitartez, interesa izan dezaketen auzotarrek zuzenean eta/edo diferituan parte har dezaten deialdi bakoitzean, horretarako bilkurarekin bat datorren metodologia egokia ezarriko delarik. Kanal horiek gardenak eta trazabilitatea dutenak izan beharko dute, herritarren parte-hartze optimoa bermatzeko eta balizko edozein manipulaziori buruzko zalantzak ekiditeko.

3. Aipatutako organoen deialdiak eta horien barnean sortutako akta, akordio eta dokumentu guztiak Herritarren Partaidetzako plataforma digitalean eta/edo udal webgunean argitaratuko dira.

11. artikulua.–Partaidetza-organoen jarraipena, ikuskapena eta ebaluazioa.

1. Demokrazia Parte-hartzailearen Tokiko Behatokiaren (DPTB) ardura izanen da Udaleko partaidetza-organoen jarraipena, ikuskapena eta ebaluazioa egitea.

12. artikulua.–Herritarren Partaidetzako Organoen deuseztatzea.

1. Udalaren osoko bilkurari dagokio partaidetza-organo hauek aldatzea edo deuseztatzea.

2. Partaidetza-organo batek ez badu bilerarik egin urtean behin gutxienez, Udalaren osoko bilkurak, demokrazia parte-hartzailearen tokiko behatokiaren aldeko txostenarekin, deusezta dezake, motiboak emanda.

II. KAPITULUA

Partaidetza-Organoak

LEHEN ATALA

Hiriko Gizarte Kontseilua-Hirigunea

13. artikulua.–Izaera juridikoa.

1. Iruñeko Hirigunea-Hiriko Gizarte Kontseilua da partaidetzarako organo aholku-emaille gorena, eta informazio-, azterketa-, eztabaida- eta aholkularitza-funtzioak betetzen ditu gure hiriaren garapen estrategiko, ekonomiko, sozial eta kulturean eragina duten udal-politikako ildo handiak zehaztu eta erabakitzeko orduan.

14. artikulua.–Helburuak eta funtzioak.

1. Bere helburua eragile ekonomiko-sozialen, erakundeen eta, oro har, herritarren arteko gogoeta bat sustatzea eta bideratzea da, hiriaren jasangarritasunean, kohesio sozialean eta garapen ekonomiko, sozial eta kulturean -eta, batez ere, etorkizunerako estrategian eta proiektu handietan- eragina duten gai handien inguruan.

2. Hirigunea-Hiriko Gizarte Kontseilua, era berean, hirian han eta hemen dauden sektoreko eta lurraldeko partaidetza-organoak koordinatzeko gunea ere bada. Partaidetza-sarearen erdiko gunea da; ikuspegi eta interes desberdinak dituzten eragileak biltzen dira bertan, baina helburu erkide batekin: inplikatzeko eta elkarrekin lan egiteko Iruñeko bizi-kalitatea hobetzeko.

3. Hirigunearen funtzioa arlo hauetan txostenak, azterlanak eta proposamenak egitea da: garapen lokala, soziala, ingurumen arlokoa eta ekonomikoa; hiriaren plangintza estrategikoa eta hirigintza-proiektu handiak. Txosten horiek genero-ikuspegia erantsi beharko dute beren idazketan. Eta ez dira lotesleak izanen.

4. Hirigunea kontsultatuko da modu ez mugatzailean iritzia eman dezan honako gai hauen inguruan:

a) Tokiko ordenantza eta erregelamenduak sortzea edo aldatzea, baita UPren formulazio eta errebisioari eta hirigintza-proiektu handiei buruz ere.

b) Udal-aurrekontuak eta Kontu Orokorrak, baita garapen jasangarrian eragina duten erabaki handiak ere.

Halaber, eginkizun hauek ditu, modu ez mugatzailean iritzia adieraztekoak:

a) Hiriko gai bati buruzko txostena egitea, bere ekimenez edota, alkateak, zinegotzi ordezkariak, gainerako partaidetza-organok edo Udalean ordezkariak duten talde politikoek hala eskatu diotelako.

b) Hiriaren esparruan jardura ekonomikoa eta soziala duten elkarte eta erakundeetatik datozen eskaerak eta proposamen sozioekonomikoak bideratzea.

c) Gai sozioekonomikoei buruzko azterketa eta proposamenetan, parte hartzeko eta elkarriketarako kanal modura jardutea solaskide sozialak diren pertsonen artean.

d) Ekimenak bultzatzea izaera orokorreko udal-xedapenak onartzeko.

e) Hiriko edota sektore edo lurralde izaerako Plan Estrategikoak bultzatzea eta sustatzea.

f) Tokian interesa duten arloei buruzko azterlanak sustatzea.

g) Gauzatutako jarduketei eta hobekuntzarako proposamenei buruzko urteko memoria bat egitea, zeina Udalarari aurkeztu beharko baitzaio Herritarren Partaidetzarako Hiriaren Eguna gisa markatzen den egunean.

h) Udalaren Osoko Bilkurari edo udal-batzordeei akordioak proposatzea, gehienez ere bat saio bakoitzeko.

i) Parte-hartze prozesuak egiteko proposatzea (urtean bi, gehienez).

j) Udalarari data bat proposatzea Herritarren Partaidetzarako Hiriko Eguna egiteko.

5. Jarduketa-eremua udal-barrutia izanen da. Halaber, Hiriguneak lankidetzak eta gogoeta bultzatuko ditu bere eskumeneko gaitetan eta zereginetan, udalaz gaindikoa eta/edo eskualdeko erakunde eta erakundeekin, bai eta beste hiri batzuekin ere, sare gisa edo beste formula batzuen bitartez.

15. artikulua.–Osaera eta egitura.

1. Hiriguneko burua alkatea bera izanen da, edo hark bere zereginak eskuordetzen dizkion zinegotzia, eta Idazkaritza ere izanen du, Osoko Bilkurako Idazkari Nagusiaren edo hark eskuordetzen duen udal teknikariaren ardurapean: Gainera, Hiriguneko kide izanen dira hurrengo paragrafoan adierazitako taldeetatik Udalaren Osoko Bilkurak izendatzen dituen pertsonak:

I. taldea.–Udalan ordezkaturik dauden udal-taldeak. Bana, udal-talde bakoitzeko.

II. taldea.–Auzoguneen herritar ordezkariak: 2 ordezkari izendatuko dira aipatutako organo bakoitzeko, baina ez dute udalordezkariak izan behar, ez eta udal teknikariak ere. Ordezkari horiek zozketa bidez hautatu ahalko dira dagokion lurraldean herritar aktibo gisa errolatuak dauden pertsonen artean.

III. taldea.–Elkarguneen herritar ordezkariak.

2 ordezkari izendatuko dira aipatutako organo bakoitzeko, baina ez dute udaleko zinegotziak izan behar, ez eta udal teknikariak ere. Ordezkari horiek zozketa bidez hautatzen ahalko dira dagokion sektoreko partaidetza-organoa jada parte hartzen duten herritar aktibo gisa errolatuak dauden pertsonen artetik.

IV. taldea.—Enpresa-erakundeak, unibertsitateak eta sindikatuak. Bakoitzak kide bat izendatuko du.

V. taldea.—Administrazio autonomikoa, administrazioaren beraren proposamenez.

2. Herritarren eta instituzioen ordezkarien txandakatzea edo aldizkatzea bermatzeko, karguen berrikuntza eginen da lau urtetik behin, Udalbata aldatzen denean: Hiriguneko kideak, gehienez ere, 8 urtez segidan egon ahalko dira karguan.

3. Organismo bakoitzak ordezkari bat izendatu beharko du; bestalde, ordezkariak demokratikoki hautatuko dira herritarren partaidetzarako organo, instituzio, erakunde edo elkarte bakoitzaren barruan.

BIGARREN ATALA

Lurraldeko Partaidetza Organoa-Auzogunea

16. artikulua.—Izaera juridikoa.

1. Auzoguneak-Lurraldeko partaidetza-organoa herritarren partaidetzarako organo egonkor gisa eratuko dira, eta herritarren partaidetza bideratu, erraztu eta sustatuko dute lurralde-mailako udalerriko gaien kudeaketan (zerbitzuak, planak, programak, proiektuak eta jarduketak).

2. Beren funtsezko helburua udal politiken azterketa eta koprodukzioa sustatzea da lurraldeko eragileen, herritarren, gizarte-ehuneko erakundeen, ekonomia-ehuneko erakundeen, udal-teknikarien, instituzio-ehuneko teknikarien eta udal-agintarien artean, lurralde-eremuko eguneroko bizimoduan eragina duten udalerriko gaien inguruan.

3. Auzogunearen jarduketa-eremua hiriaren zati zehatz eta mugatu bat izanen da, auzo bat edo gehiago, edo gune bat, adibidez.

4. Auzoguneak jarduketa-eremuaren lurralde-mailako errealitate soziologikoa aintzat hartuta eratu dira. Bere sorrera Erregelamendu honetako 5. artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko da.

5. Auzogune baten deuseztatzea Erregelamendu honetako 12. artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko da.

17. artikulua.—Auzo-eztabaidagunea.

1. Auzo-eztabaidagunea auzoak parte hartzerako duen organo irekia da, eta bertan parte hartzen dute auzoko gizarte- eta ekonomia-ehuna osatzen duten kolektibo guztiek, herritar aktiboek eta herritarrek, oro har.

2. Honako hauek dira auzo-eztabaidagunearen eginkizunak:

a) Herritarren proposamenak, iradokizunak eta iritziak jasotzea Auzogunearen esparruan Udalaren zerbitzu edo jarduketan funtzionamenduaren inguruan, bai eta auzoarekin lotutako gai guztien inguruan ere.

b) Udal-informazioa jasotzea kasuan-kasuan auzorako edo bere lurralde-eremurako Udalak aurreikusten dituen proposamen, proiektu eta jarduketan inguruan.

c) Auzo-Kontseiluaren eraketa erabakitzea.

d) Hirigunearen aurrean auzoa ordezkatzeko duten kideak hautatzea.

e) Auzo-kontseiluak aurkeztutako kudeaketa-txostenak onestea.

18. artikulua.–Auzo-kontseilua.

1. Auzoguneak aukera izanen du auzoaren ordezkaritza-organo edo Auzo-kontseilu bat izateko, betiere auzo-eztabaidaguneak hala erabaki eta 2. saio batean berretsiz gero.

2. Auzo-kontseiluaren funtzioa izanen da partaidetza-organoaren helburuak lortzeko behar diren lanak koordinatu, antolatu eta bultzatzea, foroak edo asanbladak berak eskuordetutakoez gain, honako eskumen hauek izanen dituelarik:

a) Informazio-eskumenak. Informazioa jasoko dute herritar-kolektiboei eta auzotarrei argibideak helarazteko haien auzoak zuzenean ukitzen dituzten kontuei buruz.

b) Kontsulta-eskumenak. Udalak kontsulta egitea haiei, lehen eskutik ezagutzeko auzoan jarduten duten pertsonen eta kolektiboen iritzia.

c) Aginduzko eskumenak. Auzoari eragiten dioten alderdi garrantzitsu batzuetan, hala nola hiri-gintza-plan eta ekipamendu garrantzitsuetan, nahitaezkoa izanen da Auzo-kontseiluaren txostena.

d) Kudeaketa partekatua herritarrekin Udalak aurrez erabaki eta onetsitako arloetan, haien inguruneari aipamen eksklusiboa egiten dietenak, hala nola lurralde izaerako udal-ekipamenduak eta zentro soziokultural eta komunitarioen jardueren programazioan parte hartzea.

Aipatutako eginkizun orokorrez gain, eta modu ez mugatzailean, honako hauek izanen ditu:

a) Herritarren eta erakundeen parte-hartze zuzeneko eta deszentralizatu sustatzea Udalaren jardueran eta, horretarako, behar diren mekanismoak ezartzea, jarduera horien informazioa eman, bultzatu eta jarraipena egin ahal izateko.

b) Udaleko gobernu-organoei lurraldeko udal-zerbitzuen funtzionamenduari buruzko informazioa ematea eta proposamenak egitea, hobeto funtziona dezaten.

c) Udalari, urtero, lurraldearen beharrezko egoera bat aurkeztea, lehentasunak hautatu eta adierazita.

d) Osoko Bilkuran edo batzordean jorratzeko egoki jotzen dituen gaiak proposatzea eta horiek defendatzeko parte hartzea, betiere organo horiek proposatutako gai bat baino gehiago landuko ez delarik Osoko Bilkura edo batzorde bakoitzeko.

e) Dagokion lurraldean eragina duten udalerriko plan estrategikoetako elementuak aztertzea.

f) Lurralde bakoitzean eragina duten udal-jarduera eta -akordioei buruzko ahalik eta informazio eta publizitate handiena ematea.

g) Udalarekin lankidetzan aritzea lurraldeko arazo eta beharrezko irtenbidea bilatzeko, eta lurraldeko politiken aplikazioan elkarlanean jardutea.

h) Elkarrekin biltzea, herritarren partaidetza eta erakundeen arteko lankidetzaren sustatzea, lurralde-eremuan jarduten duten instituzio edo erakundeen arteko koordinazioa indartuz, erakunde horiek publikoak nahiz pribatuak izan.

i) Auzoarentzat interesa duten gaiei buruzko informazioa biltzea, aurrez eskatuta.

j) Aldian behin auzoko asanbladari bere jardueren berri ematea.

k) Hirigunearen aurrean auzoa ordezkatzeko duten kideak hautatzeko prozesua antolatzea.

l) Halaber, udal-aurrekontuaren kargurako partida bat jartzen denean Auzoaren eskura, aurretik elkarrekin planifikazioa eginda, Udalak prozesu bat antolatuko du, partida zertan erabili erabakitze-ko.

m) Udalarekin topaketa irekiak antolatzea auzorako interesekoak diren gaiekin.

n) Auzo-batzarrak edo foroak egitea proposatzea.

3. Auzo-kontseiluaren osaera 7. artikuluan ezarritako irizpideekin bat eginen da.

HIRUGARREN ATALA

*Elkargunea-Sektoreko Partaidetza Organoa***19. artikulua.–Araubide juridikoa.**

1. Elkargunea-Sektoreko Partaidetza Organoa herritarren partaidetzarako organo egonkor gisa eratuko dira, eta herritarren partaidetza bideratu, erraztu eta sustatuko dute sektore-mailako udalerriko gaien kudeaketan (zerbitzuak, planak, programak, proiektuak eta jarduketak).

2. Beren funtsezko helburua udal-politiken azterketa eta koprodukzioa sustatzea da sektoreko eragileen, herritarren, gizarte-ehuneko erakundeen, ekonomia-ehuneko erakundeen, udal-teknikarien, instituzio-ehuneko teknikarien eta udal-agintarien artean, sektore-eremuko eguneroko bizimoduan eragina duten udalerriko gaien inguruan.

3. Elkargunearen jarduketa-eremua udal-errealitatean mugatuta dagoen sektore jakin bat izanen da.

4. Elkargunea-Sektoreko partaidetza-organoa eratuko da jarduketa-eremuaren sektore-mailako errealitate soziologikoa aintzat hartuta. Bere sorrera Erregelamendu honetako 5. artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko da.

Sektoreko partaidetza-organo-Elkargune baten deuseztatzea Erregelamendu honetako 12. artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko da.

20. artikulua.–Helburuak eta funtzioak.

Elkargunearen funtzioa izanen da txostenak, analisiak, azterlanak, proposamenak eta koprodukzioak egitea, bere sektore-eremuarekin lotura duten jarduketa eta arloetan.

2. Elkargunea-Sektoreko partaidetza-organoa kontsultatuko da modu ez mugatzailean iritzia adieraz dezan honako gai hauen inguruan:

a) Elkarguneari dagozkion gaiak jorratzen dituzten Ordenantzak, Erregelamenduak edo udal-araudia sortzea edo aldatzea.

b) Elkargunearen esparruari eragiten dion Udalaren edozein gai garrantzitsu.

Halaber, eginkizun hauek ditu, modu ez mugatzailean iritzia adieraztekoak:

a) Herritarren eta erakundeen parte-hartze zuzeneko eta deszentralizatua sustatzea Udalaren jardueran eta, horretarako, behar diren mekanismoak ezartzea, jarduera horien informazioa eman, bultzatu eta jarraipena egin ahal izateko.

b) Elkargunearen eremuan, udal-zerbitzuen eta/edo jarduketan funtzionamenduari buruz herritarrek dituzten proposamenak biltzea.

c) Udaleko gobernu-organoei sektoreko udal-zerbitzuen funtzionamenduari buruzko informazioa ematea eta proposamenak egitea hobeto funtziona dezaten.

d) Udalari, urtero, sektoreko beharrezkoen egoera bat aurkeztea, lehentasunak hautatu eta adierazita.

e) Osoko Bilkuran edo batzordean jorratzeko egoki jotzen dituen gaiak proposatzea eta horietan defendatzea, betiere organo horiek proposatutako gai bat baino gehiago landuko ez delarik Osoko Bilkura edo batzorde bakoitzeko.

f) Dagokion sektorean eragina duten udalerriko plan estrategikoetako elementuak aztertzea.

g) Sektore bakoitzean eragina duten udal-jarduera eta -akordioei buruzko ahalik eta informazio eta publizitate handiena ematea.

h) Udalarekin lankidetzan aritzea sektoreko arazo eta beharrezkoen irtenbidea bilatzeko, eta sektore-eremuko politiken aplikazioan elkarlanean jardutea.

- i) Elkarteetan biltzea, herritarren partaidetza eta erakundeen arteko lankidetzat sustatzea, sektorean jarduten duten instituzio edo erakundeen arteko koordinazioa indartuz, erakunde horiek publikoak nahiz pribatuak izan.
- j) Elkargunearentzat interesa duten gaiei buruzko informazioa biltzea, aurrez eskatuta.
- k) Sektore-esparrua ordezkatzeko Hirigunean.

III. KAPITULUA

Behatokiak

21. artikulua.–Izaera juridikoa.

1. Behatokiak politika publikoen –hala sektore-eremukoak nola lurralde-eremukoak– jarraipena eta analisi partekatua egiteaz arduratzen diren antolakuntza-espazioak dira, horietatik abiatuta hiria aberastu dezaketen beste esperientzia batzuei buruzko ezagutza eta gogoeta sor dadin.

Herritarren partaidetzarako organoen sostengurako tresna egonkor gisa eratzen dira behatokiak, eta udaleko gaien kudeaketako partaidetza indartzen dute, dagokien partaidetza-organoren barruan, hala udalerriko politika publikoen esparruan, nola gainerako tokiko errealitatean. Helburu horrekin sortu ahalko dira hurrengo hauek:

- Hiriko Behatokia, Hirigunetik eratorria eta erakunde horren ekimenez sortua.
- Elkargune bakoitzaren Batzorde Iraunkorren ekimenez sortutako Behatoki sektorialak.

2. Behatoki bakoitzak bere lan-dinamika artikulatuko du gaineratik daukan partaidetza-organorekin batera, eta honako hauek osatuko dute Behatokia: bere organoko Batzorde Iraunkorreko kideek, batzorde horretako zinegotziak izan ezik; gainera, pertsona adituak eta Behatokiaren eremu espezifikoaren barruan beren balioa aitortua dutenak sartu beharko dira.

22. artikulua.–Helburuak eta funtzioak.

1. Behatokiaren funtzioa txostenak, analisiak, azterlanak, eta proposamen teknikoak egitea izanen da, bere sektore- edo lurralde-eremuarekin lotutako jarduketara eta arloetan.

2. Behatokiak, gutxienez, sektoreari buruzko txosten bat egin beharko du urtero, eskumena duen eremuan udalerriko datu objektiboak eskuratzeko borondatearekin, hala, aztertutako errealitate sektorialaren hainbat alderdi bilduko dituen ikuspegi ahalik eta osoena izateko eta errealitate horrek denboran duen bilakaeraren jarraipena egiteko.

3. Behatokiak, urteroko txostenaz gainera, eskumena duten partaidetza-organoei eskatzen dizkioten txostenak eta azterlanak egiten ditu.

4. Sektoreko Behatokiaren barnean sortutako txosten, azterlan eta dokumentu guztiak Herritarren Partaidetzarako plataforma digitalean eta/edo udal webgunean argitaratuko dira.

IV. KAPITULUA

Demokrazia Parte-Hartzailearen Tokiko Behatokia (DPTB)

23. artikulua.–Izaera juridikoa.

Iruñeko Demokrazia Parte-hartzailearen Tokiko Behatokia da –DPTB– udalerrian izaten diren parte-hartze esperientzien jarraipena eta analisi partekatua egiteko partaidetza-espazioa.

Esperientzia horiek Herritarren Partaidetzarako (herritarren partaidetzarako organoak, demokrazia parte-hartzaileko mekanismoak, parte-hartze prozesuak, etab.) udalerriko politika publikoen

esparruan eta beren espazio formaletan gara eta gauza daitezke, edota hiriko beste edozein espazio sozialetan, era autonomoago edo autokudeatuagoan.

24. artikulua.–Helburuak eta funtzioak.

1. Iruñeko DPTBaren helburu nagusia udalerrian partaidetza bultzatzea da, eta, horretarako, partaidetza-esperientziak harremanetan jar daitezen erraztea, bai eta haien azterketa egitea dadin ere zenbait eremu eta ikuspegitatik, era horretan, lehendik dauden praktikak aberasteko eta izaera inklusibo eta integrala duten esperientzia berriak sustatzeko.
2. Honako hauek dira DPTBaren funtzioak:
 - a) Partaidetzari buruzko kontzeptuak eta irizpideak adostea, hiriarentzako hizkera erkide bat definitzeko partaidetzaren arloan.
 - b) Herritarren partaidetzarako organo, mekanismo eta prozesuetarako lan sistemak aztertzea eta proposatzea.
 - c) Parte-hartzea ebaluatzeko sistemak ezartzea.
 - d) DPTBaren lanean sortzen den informazioa biltzea, aztertzea eta zabaltzea.
 - e) Partaidetzan, kalitate-irizpideak definitzea.
 - f) Herritarren partaidetzaren kalitatea errazten eta hobetzen duten jarduketak proposatzea.
 - g) Herritarrek DPTBan parte hartzea erraztea, honako hauen bidez:
 - (a) Laneko espazioak irekitzea.
 - (b) Sortutako azterlanak eta txostenak zabaltzea.
 - h) Eragile-taldeetan eta partaidetza-organo, -mekanismo eta -prozesuetan hautematen diren prestakuntza-premien berri ematea.
 - i) Munduko beste hirietan herritarren partaidetzarako zer ekimen egiten diren aztertzea.
 - j) Erregelamendu honetan edo beste batzuetan esleitzen zaizkion gainerakoak.
3. DPTBaren sorrera Herritarren Partaidetzako Alorraren edota partaidetza-politikak txertatuak dauden alorraren ardura izanen da.

V. KAPITULUA

Elkarrizketa eta partaidetzarako hitzarmenak eta akordioak

25. artikulua.–Izaera juridikoa eta osaera.

1. Udalak susta ditzake eztabaida, elkarrizketa, lankidetzeta eta adostasunerako espazioak udalaren jarduketako hainbat sektoretan interesa duten pertsona, erakunde edo instituzioekin, udal-politika publikoei buruzko printzipio partekatuak jasotzen dituzten Hitzarmen edo Akordioak izenpeturik edo haietara atxikirik.
2. Hitzarmen eta Akordio horiek parte hartzen duten pertsonen partaidetzan eta inplikazio aktiboan oinarritzen dira, eta herritarren partaidetzarako organoen bidez eginen dira. Hortaz, eskumena duten sektore- eta/edo lurralde-eremuko herritarren partaidetzarako organoari edo -organoei lotuta egongo dira.
3. Hitzarmen edo Akordio horiek sinatzaileek partekatzen dituzten helburuak, xedeak eta printzipioak zehaztu behar dituzte, bai eta barneko antolaketa eta funtzionamendua ere.
4. Hitzarmen edo Akordioak bere batzarra izan behar du, zeina eskumena duen herritarren partaidetzarako organoaren lantaldea edo batzordea izanen baita. Batzar horretan parte hartu behar dute Hitzarmena edo Akordioa sinatu duten –edo harekin bat egin duten– erakunde, pertsona eta

instituzio guztiek eta, tratatzen duen arloaren arabera, alorreko herritarren partaidetzarako organoko udal-ordezkariek.

26. artikulua.–Hitzarmenaren garapena.

1. Batzarraren erabakiak guztien adostasunarekin hartzen ahaleginduko dira, edo, ezinezkoa bada, gehiengoz.

2. Ohiko bilkurak alde batera utzita -Hitzarmen edo Akordioan finkatzen diren egunetan eginen dira-, Batzarrak bilkura bat egin beharko du urtean behin, non Hitzarmen edo Akordioaren kudeaketaren emaitzei buruzko txostena aurkeztuko zaion eskumena duen sektore- eta/edo lurralde-eremuko Herritarren Partaidetzarako Organoari.

27. artikulua.–Gune birtuala.

1. Hitzarmen edo Akordioek beren isla izanen dute Herritarren Partaidetzarako plataforma digitalean, eskumena duen sektore- eta/edo lurralde-eremuko Herritarren Partaidetzarako Organoari dagokion gunean.

2. Halaber eta, gardentasunaren mesedetan, aipatutako Hitzarmen edo Akordioaren barnean sortutako akta, erabaki eta dokumentu guztiak Herritarren Partaidetzarako plataforma digitalean eta/edo udal webgunean argitaratuko dira.

III. TITULUA

Partaidetza-prozesuak

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

28. artikulua.–Partaidetza-prozesuen helburuen eta mugen kontzeptua.

1. Parte-hartze prozesua honela defini daitekeen prozesu publiko bat da: denboran mugatutako faseen arabera ekintza-sekuentzia bat herritarren artean edota herritarren eta udaleko arduradunen artean eztabaida eta argudio-kontrastea sustatzera zuzendua, udal-jarduketa jakin bati (Zerbitzu, Plan, Programa, Proiektu, Jarduketa, etab.) buruz dituzten iritziak eta proposamenak jasotzeko xedearekin.

2. Prozesuaren helburuak hurrengo hauetako bat edo gehiago izan daitezke:

a) Diagnostiko bat egitea problematika edo errealitate jakin baten hasierako egoerari buruz, xede horretarako politika publiko bat diseinatzeko oinarri bat izateko.

b) Udalaren jarduketa, politika, proiektu edo zerbitzu jakin bat hobetzea, hedatzea, erreformatzea edo berritzea.

c) Egoera jakin batean esku hartzeko proposamen zehatzak iradokitzea edo baloratzea.

3. Parte-hartze prozesuaren emaitzak ez du eraginik izanen Udaleko gobernu-organoen erabakitzeko ahalmenetan.

4. Parte-hartze prozesuen gauzatze efektiboak ezin dezake eragotzi administrazio-prozedurak espresuki legez ezarritako epearen barruan ebaztea.

5. Ezin da oinarrizko eskubideak eta askatasunak mugatzen edo murrizten dituzten parte-hartze prozesuetarako deialdirik egin.

29. artikulua.–Partaidetza-prozesuen sustapena.

1. Honako hauek susta ditzakete parte-hartze prozesuak:

–Herri-ekimenak.

–Sektoreko edo lurraldeko partaidetza-organoek.

–Udalak.

2. Herri-ekimenez sustatutako parte-hartze prozesuak, parte hartzeko legitimazioari dagokionez, honako hauetan oinarrituko dira: izapidetzeko beharrezkoa den sinadura kopurua, eskabidearen aurkezpena eta sinaduren bilketa, autentifikazioa eta aurkezpena, IV. tituluko 4. kapituluan xedatutakoaren arabera.

3. Sektoreko edo lurraldeko partaidetza-organoek sustatutako parte-hartze prozesuak III. tituluan xedatutakoan oinarrituko dira.

4. Udalak sustatutako parte-hartze prozesuak direnean, zuzenean alkateak berak edota udal-alarretako zinegotziek sustatu ahalko dituzte, Gobernu Batzordearen bitartez. Edota udal-taldeek. Udal-talde bakoitzak urtean gehienez parte-hartze prozesu bat proposa dezake.

30. artikulua.–Partaidetza-prozesuaren talde bultzatzailea: funtzioak eta eraketa.

1. Talde bultzatzaileak parte-hartze prozesuaren eskabidea eginen du, haren diseinuan eta plangintzan parte hartuko du herritarren partaidetzarako lantalde teknikoarekin batera, eta Prozesuaren Jarraipen Batzordean egongo da, haren garapen osoan, baldin eta azkenean onartzen badute.

2. Talde bultzatzailea honako hauek osatuko dute:

a). Parte-hartze prozesua herri-ekimenez sustatu den kasuetan, ekimenak izendatzen dituen pertsonak eratuko dute parte-hartze prozesuaren talde bultzatzailea.

b) Parte-hartze prozesua sektoreko eta/edo lurraldeko herritarren partaidetzarako organoetatik sustatu den kasuetan, talde bultzatzailearen eginkizunak partaidetza-organoaren kudeaketaren ardura duen edo duten udaleko alorraren edo alorren ardura izanen dira, bai eta inplikaturik dauden partaidetza-organoetako herritarren ordezkari batena ere.

c) Parte-hartze prozesua Udalak sustatzen duen kasuetan, talde bultzatzailearen funtzioak beraren kudeaketaren ardura duen edo duten udaleko alorrari edo alorrei dagozkie. Zinegotzi baten edo udal-talde baten ekimenez izanez gero, bertan parte hartuko du proposamena egiten duen zinegotziak edo bere udal-taldeko ordezkariaren batek.

II. KAPITULUA

Partaidetza-prozesu baten eskabide-, diseinu- eta onarpen-prozesua

31. artikulua.–Partaidetza-prozesu baten eskabide-, diseinu- eta onarpen-prozesua.

1. Bai parte-hartze prozesua herri-ekimenez edo sektoreko eta/edo lurraldeko partaidetza-organoek sustatzen duten kasuetan, eta bai Udalak edo udaleko talde politikoek sustatzen dutenean, parte-hartze prozesu bat abian jartzeko urratsak ondoren zehazten diren hauek izanen dira:

a) Parte-hartze Prozesuaren eskabidea, talde bultzatzailearen aldetik.

b) Parte-hartze prozesuaren diseinua eta plangintza, talde bultzatzailearen aldetik, Herritarren Partaidetzako lantalde teknikoaren lankidetzarekin.

c) Onarpena eta parte-hartze prozesuaren deialdia, alkatearen aldetik.

32. artikulua.–Partaidetza-prozesuaren eskabidearen aurkezpena.

1. Talde Bultzatzaileak parte-hartze prozesua aurkezteko, xede horretarako gaituta dagoen eskabide eredia bete beharko du eta, gero, erregistroaren bitartez aurkeztu, Herritarren Partaidetzako Alorrera zuzenduta.

2. Eskabidean, talde bultzatzaileak honako hauek egin beharko ditu:

a) Proposatuko parte-hartze prozesua deskribatu.
b) Parte-hartze prozesuaren justifikazioa eta xedea definitu, herritarren gogoeta eta iritzi pean jarriko den jarduketa publikoa zein den zehazturik.

c) Parte-hartze prozesuaren lurralde- eta/edo sektore-eremua identifikatu eta proposatu.

33. artikulua.–Partaidetza-prozesuen informazioa, diseinua eta komunikazio-plana.

1. Talde bultzatzaileak prestatutako parte-hartze prozesurako proposamenean, partaidetza-prozesu orok ezinbestekoak dituen informazioa, diseinua eta komunikazio-plana zehaztuko dira. Ordenamendu juridikoarekin oro har eta udal-araudiarekin bat eratu beharko da.

Proposamenak hauek adierazi beharko ditu:

a) Parte-hartze prozesuaren izena.

b) Prozesuaren kudeaketaren organo arduraduna.

c) Parte-hartze prozesuaren lurralde eta/edo sektore-eremua.

d) Gutxienez, eztabaidarako deia egin beharko zaien pertsona fisiko edo juridikoen profil pertsonala, teknikoa, politikoa, profesionala edo beste zeinahi motatakoa. Aurreko hori gorabehera, prozesua herritar guztiei zuzenduko zaie, inolako bereizketarik gabe.

e) Prozesuaren xedea, gaiaren azalpen xehatua barne dela (argi zehaztu beharko da zein den herritarren gogoetarako jartzen den jarduketa publikoa eta zein diren gaiaren inguruan egin daitezkeen ekarpenak mugatzen edo baldintzatzen dituzten esparru teknikoa, ekonomikoa, juridikoa eta politikoa).

f) Aurreikusten den kronograma, parte-hartze prozesuaren garapenerako data eta/edo faseak barne.

g) Prozesuan parte hartzeko moduak.

h) Parte-hartze prozesuko informazio- eta komunikazio-sistema.

i) Beharrezko dokumentazioa eta informazioa parte hartzeko deia egiten zaien pertsonak beren iritzia osa dezaten.

j) Parte-hartze prozesuaren emaitzak itzultzeko erak, pertsona parte-hartzaileei, bereziki, eta herritar guztiei, oro har.

k) Prozesuaren jarraipena, kontrola eta ebaluazioa egiteko tresnak eta adierazleak, Jarraipen Batzorde baten izendapena barne.

l) Emaitzak argitaratzeko modua; gutxienez, udal-webgunean eta/edo herritarren partaidetzarako plataforma digitalean eman beharko dira jakitera.

34. artikulua.–Partaidetza-prozesuen onarpena eta deialdia.

1. Parte-hartze prozesua onartzea eta deialdia egitea Alkatezari dagokio. Parte-hartze prozesuaren deialdiaren ebazpenean jaso beharko dira talde bultzatzailearen proposamenetik abiatuta erabakitako informazio, diseinu eta plangintzaren alderdi guztiak, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera. Gainera, ekitaldiak eta eztabaidak zer denbora-tartetan antolatuko diren adierazi beharko da: 120 egun gehienera. Nolaz eta ez den epe luzeago bat adosten, onarpen-akordioan justifikatu beharko diren arrazoi bereziak direla medio.

2. Parte-hartze prozesuaren onarpenari dagokion ebazpena gehienez hiru hilabeteko epearen barruan hartuko da, eskabidea egiten den egunetik zenbatzen hasita.

3. Deialdia, gutxienez, bi modutara egingen da: era analogikoan, Udaleko Oholean iragarkia jarrita, eta era birtualean, Udalaren webgune, sare sozial eta/edo Herritarren Partaidetzako Alorraren bidez, komunikaziorako beste bitarteko osagarri batzuen erabilpena baztertu gabe.

III. KAPITULUA

Partaidetza-prozesuen garapena

35. artikulua.–Tresnak eta helburuak partaidetza-prozesuaren garapenean.

1. Parte-hartze prozesua tratatu nahi den gaiaren beharrezanetara eta helburuetara ongien egokitzen diren bitartekoen bidez garatu ahal izanen da, hala nola eztabaida-foroak, lantegiak, iritzien aurkezpen telematikoa, bideokonferentziak edo iritzien adierazpen askea ziurtatzen duen eta ekarpen guztiak biltzea ahalbidetzen duen beste edozein metodo.

2. Eztabaida publikoaren prozesuarekin lortu nahi den helburua argi eta garbi jaso beharko da deialdian, eta, bereziki, ondorengo helburu hauetatik zein edo zeintzuk lortu nahi diren zehaztuko du:

a) Diagnostiko bat egitea problematika edo errealitate jakin baten hasierako egoerari buruz, xede horretarako politika publiko bat diseinatzeko oinarri bat izateko.

b) Udalaren jarduketara, politika, proiektu edo zerbitzu jakin bat hobetzea, hedatzea, erreformatzea edo berritzea.

c) Egoera jakin batean esku hartzeko proposamen zehatzak iradokitzea edo baloratzea.

36. artikulua.–Partaidetza-prozesuetan parte hartzera deitutako pertsonak.

1. Parte-hartze prozesuaren onarpena egiten denean, gutxienez prozesurako deia egin beharko zaien pertsonen profil pertsonala, teknikoa, politikoa, profesionala, elkarte-arlokoa edo beste zeinahi motatakoa adierazi beharko da.

2. Onarpena egiten den unean ez bada posible profil horiek guztiak zehaztuta edukitzea, behar diren azterlanak egin beharko dira parte-hartzaileen identifikazioa egiteko eztabaidak hasi baino lehenago.

3. Parte hartzera deituko zaien pertsonen profilek, edonola ere, ahalik eta pluraltasun eta aniztasun handiena izanen dute, generoari, adinari eta jatorriari dagokionez, eztabaidatuko den gaiaren ezaugarrien arabera.

Era berean, behar diren bitartekoak jarri beharko dira beren baldintza indibidualak edo sozialak direla-eta zailtasun bereziak dituzten pertsonen parte-hartzea errazteko, gaiak eragiten dion sektore-eta/edo lurralde-eremuko gizarte- eta populazio-konposizioa kontuan harturik. Prozesua aurrera ateratzeko orduan, tresna egokien erabilpena aurreikusi beharko da haien presentzia efektiboa errazteko.

Jarraipen Batzordeak adi egon beharko du, bereziki, parte hartzen duten pertsonen inklusio eta dibertsitate handiena ahalbidetuko duten tresnak erabil daitezten.

4. Eztabaidetan parte hartzeko deia jaso lezaketeko ondorengo pertsona juridiko hauek: herritarren elkarteak, profesionalen elkargoak, sindikatuek, alderdi politikoen eta merkataritza-enpresek, bai eta presentzia nabarmena duten plataformek eta kolektiboek ere. Azken horiek beren gobernu-organoei izendatutako ordezkarien bitartez esku hartuko dute.

Esku har lezaketeko, orobat, beren ezagutza tekniko espezifikoak direla-eta parte-hartze prozesuaren xedea hobeto ulertzen lagun dezaketen pertsonak.

5. Partaidetza-prozesuan parte hartzen duten pertsonak askatasun osoz emanen dute iritzia; ez dira inork aginduta edo inor ordezkatzera joango.

37. artikulua.–Partaidetza-prozesuetako eztabaida eta aurrez aurreko lana.

1. Ekitaldiak eta eztabaidak kasuan kasuko parte-hartze prozesuaren inguruabar zehatzen eta parte hartzera deitutako pertsonen ezaugarrien arabera antolatuko dira. Eztabaida-lekuak iristen errazak izanen dira, mugikortasuna bermatu behar dute.

2. Egiten diren bilkuretan beti bermatuko dira errespetua, adierazpen-askatasuna, parte-hartzaileen arteko tratu-berdintasuna eta eztabaiden eraginkortasuna.

3. Eraginkortasun handiena lortzeko xedez, eztabaida guztiak aurrez planifikatuko dira eta, gutxienez, pertsona bat egongo da, parte-hartze prozesua errazteko helburuarekin, bilkuraren garapenean lagunduko duena.

4. Eztabaida-saioekin batera, hainbat ekitaldi antola daitezke, espazio ireki edo itxietan, formatu eta teknika desberdinetakoak, horien artean ikus-entzunezkoak, antzerkia eta musika, parte-hartze prozesuaren pean jarri nahi den proposamen zehatzari buruzko iritzien bilketa sustatzeko xedearekin. Ekitaldi horiek eztabaida-saioen gehigarriak eta osagarriak izan behar dute beti.

5. Erabiltzen den metodologia zehatzari jarraipena eginen zaio prozesuaren Jarraipen Batzordearen aldetik.

38. artikulua.–Partaidetza-prozesuetako eztabaida eta lana, plataforma digitalaren bitartez.

1. Parte-hartze prozesuetako eztabaida espazio digitaletan ere egin daiteke, Herritarren Partaidetzarako plataforma digitala erabilita. Kasu horretan, hala ere, beharrezkoa da aurrez aurreko eztabaidarako espazioak ere egotea.

2. Plataforma digitalean aurrez aurreko bilkurak argitaratzen dira, bilkura horietako edukiori buruzko eztabaida errazten da eta proposamenak, ekarpenak edo iruzkinak egitea ahalbidetzen da. Halaber, informazioaren gardentasuna, trazabilitatea eta zabalkundea bermatzen da.

3. Plataforma digitalak bide eman behar du ekarpenek egindako ibilbidea eta azken erabakian izan duten eragina jarraitzeko.

39. artikulua.–Partaidetza-prozesuen emaitzen txostenak eta azken txostenak.

1. Bilkura edo ekitaldi bakoitzean aktak jasoko dira zenbait euskarritan, prozesuaren informazioa, gardentasuna eta trazabilitatea bermatuta gera dadin. Akta horiek partaidetza-prozesuan parte hartu duten pertsona guztiei igorriko zaizkie, bilkuraren ondorengo hamabost egunen barruan, posta elektronikoz gehienbat, eta plataforma digitalean argitaratuko dira. Aktei bidezko zat jotzen diren zuzenketak aurkeztu ahalko zaizkie, prozesuan ezarritako epearen barruan.

2. Akta idazten duen pertsonak agiri horretara gehituko ditu egoki iruditzen zaizkion zuzenketak. Parte-hartze datuak, sexuaren arabera bereizita. Gainerako zuzenketak Jarraipen Batzordeari igorriko dizkio, hark zer komeni den informa dezan, haiek sartzeari edo ez sartzeari buruz.

3. Prozesuaren emaitzen txostena eztabaidetako akta guztietan eta haien ondorioetan oinarrituta egin behar da, aurreko apartatuen arabera, esandako aktetara gehitu diren zuzenketak barne, eta, behin txostena egin denean, Jarraipen Batzordeari entregatuko dio parte-hartze prozesuaren funtzionamenduaren ardura duen administrazio-organoak.

4. Jarraipen Batzordeak txostenari buruz duen iritzia eman dezake, eta, kasu horretan, azken dokumentuari gehituko zaio, zeina parte-hartze prozesuaren ardura duen administrazio-organoari pasatuko zaion.

5. Azken txostena egin beharko da, non ebaluazio bat eginen den proposatutako helburuetarako erabilitako bitartekoen egokitasunaz, lortutako emaitzez, horien baliagarritasun eta bideragarritasunaz eta deialdiaren ebazpenean jasotako beste zernahi gairen inguruan.

6. Azken txostena Herritarren Partaidetzarako plataforma digitalean argitaratuko da.

IV. KAPITULUA

*Emitza eta jarraipena***40. artikulua.–Partaidetza-prozesuaren itzulketa.**

1. Azken txostena heldu zaionetik hiru hilabeteko gehieneko epearen barruan, Udalak aditzera eman beharko du bere iritzian zein diren auzia hobetu dezaketen proposamenak, eta zer arrazoirengatik hartu dituen aintzat eta onartu dituen, eta, halaber, proposamenik atzera bota badu, zergatik bota duen atzera.

2. Onartutako neurrien inplementazioaren jarraipen-sistema bat ezarriko da.

41. artikulua.–Partaidetza-prozesuaren ebaluazioa.

1. Ebaluazio-adierazleak deialdia egiteko unean definituko dira, eginen den parte-hartze prozesuaren ezaugarrien arabera. Adierazle horiek orientagarriak dira, eta hala talde bultzatzaileak nola Jarraipen Batzordeak hobetu ditzake.

2. Parte-hartzaileek autoebaluaziorako beren bitartekoak gehi ditzakete, edota kanpotik egindako ebaluazioak ere enkarga daitezke, partaidetza-prozesuaren ezaugarri bakanek hala eskatzen dutenean.

3. Ebaluazio-txostena parte-hartze prozesuaren emaitzen txostenarekin batera argitaratuko da, guztiek haren berri izan dezaten.

42. artikulua.–Partaidetza-prozesu bat eduki duten udal-jarduketaren exekuzioaren jarraipena.

1. Parte-hartze prozesu bat eduki duten udal jarduera guztiek beren exekuzioa jarraitzeko sistema bat eskaini behar dute.

43. artikulua.–Partaidetza-prozesuaren Jarraipen Batzordea.

1. Jarraipen Batzordea da parte-hartze prozesuaren inpartzialtasuna, gardentasuna eta eraginkortasuna zaintzeko ardura duen organoa.

Parte-hartze prozesu bakoitza egiten ari den bitartean sortzen diren arazoei buruzko txostena egin beharko du prozesu bakoitzaren kasuan sortu beharko den Jarraipen Batzorde espezifikoa.

2. Erregelamendu honetan edo prozesua onartzeko dekretuan zehazten direnez gainera, hauek dira Jarraipen Batzorde honen eginkizunak:

a) Proposatutako tresnei eta eztabaidarako metodologia zehatzari buruzko iritzia ematea, komenigarriak ikusten dituen aldaketak iradokitzea eta txostena egitea.

b) Eztabaidarako tresnen funtzionamenduaren eta eraginkortasunaren jarraipena egitea eta hobekuntzak gomendatzea.

c) Prozesuan egindako bilkuren aktetan formalizatutako laburpenei buruz eztabaidarako tresnetan parte hartu duten pertsonen aurkeztutako alegazioen edo zuzenketen berri ematea.

d) Prozesuko emaitzen txostena ezagutzea eta eztabaidatzea, eta iradokizunak edo alegazioak eranstea.

e) Erregelamendu honetatik eratorritzen diren gainerakoak eta prozesua onartzeko dekretuan –edo geroztik– gomendatzen zaizkionak.

3. Jarraipen Batzordearen bileren gutxieneko maiztasuna onarpen-akordioan zehaztu beharko da.

4. Parte-hartze prozesuaren funtzionamenduaren ardura duen administrazio-organismoaren eta Jarraipen Batzordearen artean desadostasunak sortuko balira, Jarraipen Batzordeak Demokrazia Parte-hartzailearen Tokiko Behatokian aurkez dezake gaia, hark txostena egin dezan.

44. artikulua.–Jarraipen Batzordearen osaketa.

1. Partaidetza-prozesu bakoitzeko Jarraipen Batzordea pertsona kopuru bakoiti batek osatu beharko du –bost gutxienez, eta hamaika gehienez–, eta alkateak edo haren ordezkari zinegotziak izendatuko ditu, berdintasuneko ordenantzaren irizpideen arabera.

2. Jarraipen Batzordeko kide izanen diren pertsonen hasierako kopurua eta profila parte-hartze prozesuaren deialdiko dekretuan zehaztuko dira eta, nolahi ere, pluraltasun eta dibertsitate handiena bilatuko da kideen generoari, adinari eta jatorriari dagokionez, eta Udaletik eta beste administrazio publiko batzuetatik datozenen kopurua ez da inoiz gutzitzkoaren erdia baino gehiago izanen. Edozein modutan, parte-hartze prozesuaren xede den gaiaren eremuan partaidetza-organoren bat eratuta balego, eskaera eginen zaio Jarraipen Batzordeko kide izanen den pertsona bat izenda dezan; pertsona hori ezin da administrazio publiko batekoa izan.

3. Parte-hartze prozesua herri-ekimenez sustatu denean, Jarraipen Batzordeko kideetatik hiru izendatuko dira gehienez, ekimenaren Talde Bultzatzaileak proposatuta.

4. Parte-hartze prozesuak irauten duen bitartean handitu daiteke Jarraipen Batzordeko kideen osaketa gutxienez batzordekideen heren batek hori proposatzen badu, harik eta artikuluko honen 1. apartatuan aurreikusitako gehieneko kopurura iritsi arte. Batzordeak proposamena gehiago absolutuz onartzen badu, handitzea erabakiko da. Proposamena onartzen ez bada, batzordekideek kexa aurkez dezakete Demokrazia Parte-hartzailearen Tokiko Behatokian, hark dagokion txostena egin dezan. Edonola ere, Jarraipen Batzordearen osakeran, artikuluko honen 2. apartatuan ezarritako proportzionaltasuna errespetatuko da.

5. Jarraipen Batzordeak egiten duen lehen bilkuran Batzordeko lehendakaria izendatuko du ezin administrazio publikoren ordezkari ez diren batzordekideen artean.

6. Parte-hartze prozesuen Jarraipen Batzordeko kideak ezingo dira Udaleko, Nafarroako Parlamentuko, Gorte Nagusietako edota Europako Parlamentuko hautetsiak izan. Aplikatzekoak diren Iruñeko Udaleko Etika eta Jokabide Kodean aurreikusitako jokabide-, printzipio- eta balio-arauen pean egongo dira aipatutako batzordekideak.

45. artikulua.–Kexa DPTBaren aurrean.

1. Parte-hartze prozesua erregulatzen duten arauak urratu direla irizten dion edozein pertsona interesdunek aurkez dezake kexa bat Demokrazia Parte-hartzailearen Tokiko Behatokian. Kasu horretan, DPTBaren Batzorde Iraunkorrek bilera eginen du hamabost eguneko gehieneko epean, gaia eztabaidatu, eta txostena egiteko.

2. DPTBaren txostenak edo erabakiak ez dira lotesleak Udalarentzat. Hala ere, Udalak erabaki bat hartzen duenean DPTBaren irizpena eskatu den gai bati buruz, kontuan hartu beharko du erakunde horren iritzia eta, udalaren ebazpena ez badator bat hark adierazitako irizpidearekin, horretarako motiboak azaldu beharko ditu, eta ebazpena jakinaraziko die bai Batzordearen Idazkaritzari eta bai pertsona interesdunari.

46. artikulua.–Gune birtuala.

1. Partaidetza-prozesuek dagokien isla izanen dute Herritarren Partaidetzarako plataforma digitalean. Espazio hori iraunkorra izanen da partaidetza-prozesuak irauten duen bitartean, hura osatzen duten pertsonen eta parte hartu nahi duten herritarren arteko eztabaida eta informazio-trukerako erabil dadin, zereginen segimendua egiteko eta, dituen faseetan, informazio-trukea errazteko.

Behar diren kanalak prestatu eta gaituko dira, sare sozialen bitartez, interesa izan duten auzotarrek zuzenean eta/edo diferituan parte har dezaten deialdi bakoitzean, eta, horretarako, bilkurarekin bat datorren metodologia egokia ezarriko da.

2. Halaber eta, gardentasunaren mesedetan, aipatutako prozesuen barruan sortutako akta, erabaki eta dokumentu guztiak Herritarren Partaidetzarako plataforma digitalean eta/edo udal web-gunean argitaratuko dira.

3. Akordioak eta horien jarraipena eta garapena –baita trazabilitatea ere–, bermatuko dira, aldatzea eragozten duen teknologia baten bidez.

IV. TITULUA

Herritarren eskubideak

I. KAPITULUA

Eskaria egiteko eskubidea

47. artikulua.–Eskaria egiteko eskubidea.

1. Pertsona natural edo juridiko orok du, banaka edo kolektibo modura, eskaria egiteko eskubidea Udalerriaren eskumenekoa den edozein arazo edo gairi buruz, aintzat hartu gabe gai horiek eskatzaileei soilik eragiten dieten edota interes kolektibo edo orokorrekoak diren, Eskariak Egiteko Eskubidea Arautzen duen azaroaren 12ko 4/2001 Lege Organikoan aurreikusitako baldintzekin bat etorririk.

II. KAPITULUA

Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak

48. artikulua.–Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak egiteko eskubidea.

1.–Pertsona natural edo juridiko orok izanen du kexak, erreklamazioak eta iradokizunak egiteko eskubidea, Iradokizunen eta Erreklamazioen Batzorde Bereziaren Erregelamenduan jasotzen den bezala. Erregelamendu honetan xedatu ez den guztian, puntu horri buruzko udal-arautegian –Iruñeko Udaleko Iradokizunen eta Kexen Batzorde Bereziaren Erregelamendua– ezarritakoaren arabera jokatu da.

III. KAPITULUA

Jendaurreko entzunaldiak

49. artikulua.–Jendaurreko entzunaldiak.

1. Jendaurreko entzunaldia udal-arduradunen eta herritarren arteko bilgune bat da, data jakin batean, herritarrek jarduketa publiko, jarduera edo jarduketa-programa batekin lotutako informazioa jaso eta proposamenak aurkeztu eta eztabaida ditzaten. Ahal denean, eta hala eskatuz gero, plataforma digitalaren bitartez egin daiteke.

2. Alkateak edo hark eskuordetuta gaien eskumena duen zinegotziak entzunaldi publikoak deituko ditu, berak hala erabakita edo Osoko Bilkurak edo Hiriguneak proposatuta, edo herri-ekimenetik abiatuta, kasuan kasuko lurraldeko edo sektoreko organoaren proposamenaren bidez.

3. Saioa egin eta hamabost eguneko epean gutxienez, plataforma digitalean argitaratu beharko da eztabaidagai den gaiarekin lotutako informazioa.

50. artikulua.–Jendaurreko entzunaldien funtzionamendua.

1. Jendaurreko entzunaldien saioak honela antolatuko dira:

- a) Aurkezpena eta Udalaren jarrera.
- b) Hitz egiteko txanda irekia.

c) Udal-arduradunek erantzuteko tartea, hala nahi izanez gero, eztabaidan agertutakoak argitze aldera.

d) Ondorioak –halakorik bada–, lehendakaritzaren eskutik.

2. Udal-taldeek ordezkari txikienetik handienerako hurrenkeran parte har dezakete, betiere hitz egiteko txanda irekiaren ondoren eta erantzuteko tartea baino lehen. Aurretik, talde bakoitzak parte hartzeko tartea adostu beharko da.

3. Eztabaidak plataforma digitalaren bidez egiten direnean, ez dira aipatutako denborak erabiliko, saio etenik gabekoa izanen baita. Deialdi bakoitzean zehaztuko da dinamikaren araubidea, betiere, bazterkeria-ezaren eta adierazpen askatasunaren printzipio demokratikoak errespetatuz. Debeku da hitz iraingarririk edo pertsonetik oinarritzko begirune-arauak errespetatzen ez dituztenak botatzea.

IV. KAPITULUA

Parte hartzea osoko Bilkuran eta Udal-batzordeetan

51. artikulua.–Osoko Bilkuran eta Udal-batzordeetan parte hartzeko eskubidea:

Elkarte, kolektibo edo herritar aktiboren batek gai-zerrendako punturen baten inguruan parte hartu nahi izanez gero Batzorde batean edo Udalaren Osoko Bilkuran, alkateari eskatu beharko dio.

Eskaera saioa hasi baino egun baliodun bat lehenago gutxienez egin beharko da.

Norbere ekimenez egindako parte-hartzeak ere egin daitezke. Kasu horretan, saio bakoitzeko bat egingen da. Parte hartzeko eskaera kasuan kasuko Batzordea edo Osoko Bilkura egin baino lau egun lehenago egingen da.

Eskaeran parte-hartzearen arrazoiak azalduko dira.

Osoko Bilkura edo Batzordea deitzeko eskumena duen organoak bermatuko du eskubide hori betetzen dela.

Elkarte edo kolektibo bakoitzeko ordezkari batek edo bik haien iritzia azaldu ahal izanen dute adierazten zaien denboran, gai-zerrendan dagoen proposamena irakurri, eztabaidatu eta bozkatu aurretik.

Salbuespen gisa eta modu arrazoituan, Lehendakariak parte hartzen dutenei bigarren txanda labur bat ematen ahalko die, hala eskatzen badute.

V. KAPITULUA

Herritarren proposamena

52. artikulua.–Herritarren proposamena.

1. Herritarren proposamena parte hartzeko era bat da: 16 urtetik gora dituen edozein pertsonak –edo pertsona juridikok– Udalera jo dezake udalerrriaren eskumenekoak eta interesekoak diren jarduketa-proposamenak aurkeztera, haiek aurrera eramateko xedearekin.

53. artikulua.–Herritarren proposamenen aurkezpena.

1. Herritarren proposamena pertsona bakar batena edo kolektiboa izan daiteke, eta idatzi bidez eta Udalak herritarrekin komunikatzeko ezarriak dituen kanaletatik aurkeztu ahal izanen da.

2. Idatzian modu sinplean eta argian deskribatuko da egiten den proposamena, hura justifikatzen edo aholkatzen duten arrazoiekin.

3. Ez da onartuko eskubide edo interes indibidualak bakarrik aldeztu dituen proposamenik, ez eta, kolektiboak izanik ere, tokiko interes publikoari ez badagozkio.

54. artikulua.–Proposamenaren sostenguen harrera.

1. Behin proposamenak aurkezturik, eta tratamenduaren lehenengo fasean, jendaurrean erakutsiko dira Udaleko partaidetzarako plataforma digitalean, herritarren artean eztabaida daitezten eta sostenguak jaso ditzaten 16 urtetik gora dituzten herritarren aldetik.

2. Proposamenaren sostengua, hain zuzen ere, Udaleko partaidetzarako plataforma digitalaren bitartez proposatutako jarduketarekin ados dagoela adieraztea da. Udalak horretarako beharrezkoak diren aurrez aurreko bitartekoak –eta digitalak– gaituko ditu 12 hilabeteko gehieneko epean.

3. Nolanahi ere, proposamenak edo sostenguak aurkezteko sistemak proposamena aurkeztu dutenen konfidentzialtasuna bermatu beharko du eta, iruzurrezko ordezteak edo bikoiztasunak eragozteko, auzotasun-harremana izanik, proposamenari sostengua ematen dioten pertsonak nor diren egiaztatuko du.

4. Proposamen batek 16 urtetik gorako 1000 auzotarren sostengua lortzen duenean, proposamen kolektibotzat hartuko da, eta hurrengo artikulua araberak izapidetuko da.

Hala ere, proposamen bakar batek ere ez duenean proposamen kolektibo gisa hartua izateko beharrezkoa den sostengu kopurua lortzen, eskumena duen udal-organoak aurreko paragrafoan deskribatutako aukera ezarriko ahal dio aurkeztutako edozein proposamenen artean interesekotzat jotzen duen edozeini.

55. artikulua.–Proposamena izapidetzea.

1. Aurreko prozeduraren araberak onartzen diren proposamenak udalerriko organoek aztertuko dituzte eta, horretarako, hogeita hamar eguneko epean, txosten tekniko bat eginen dute haren legezkotasunaz, bideragarritasunaz eta kostu ekonomikoaz, eta abian jartzeko hartu beharreko neurriak edota egitea eragozten duten arrazoiak adierazi beharko ditu.

2. Udalak herritarren proposamenari buruzko ebazpena eman beharko du, gehienez hiru hilabeteko epean, txostena egin denetik zenbatzen hasita. Erabakia iritziaren araberakoa izanen da, eta tokiko interes publikoko arrazoietan oinarrituko da.

VI. KAPITULUA

Herri-ekimena

56. artikulua.–Herri-ekimenaren kontzeptua.

1. Herri-ekimen deitzen zaio Udalaren aldetik interes orokorrekoa eta udal-eskumenekoa den jarduketa jakin bat sustatzeko herritarren aldetik egiten den esku-hartzeari.

2. Interes orokorrekoa izatea, erregelamendu honen 56. artikuluan zehazten den sinadura kopurua biltzearen bidez egiaztatzen da.

57. artikulua.–Herri-ekimeneen xedea.

1. Herri-ekimena ondorengo hauetako bat proposatzea izan liteke:

- a) Interes orokorreko eta udal-eskumeneko jarduerak gauzatzea.
- b) Xedapen orokor bat onartzea.
- c) Herri-kontsulta bat egitea.

2. Herri-ekimenaren xedea ezin ditzake mugatu edo murriztu Konstituzioaren I. tituluko II. kapituluaren lehenengo ataleko oinarritzko eskubideak eta askatasunak, ezta foru-araudiko eskubideak

eta betebeharrak ere, ez eta tratatu ere Udal Araudi Organikoari dagozkion gaiak, edota zerga-izaera izan dezaketenak, ezta Udaleko Aurrekontuei eta Kontuei dagozkienak ere.

3. Edozein modutan, Udalaren osoko bilkurako Idazkariaren legezketasun-txostena beharko da, bai eta Kontu-hartzailearen txostena ere, ekimenak Udalaren eduki ekonomikoko eskubide eta obligazioei eragiten dienean.

58. artikulua.–Herri-ekimenen Sustapen Batzordea.

1. Edozein pertsonak edo kolektibok planteatu dezake herri-ekimen bat. Pertsona sustatzaileek Herri-ekimenaren Sustapen Batzordea eratuko dute, eta batzorde hori arduratuko da hurrengo artikuluan eskatzen den gutxienerako sinadura kopurua biltzeaz.

2. Beste hauek ere izan daitezke herri-ekimenaren sustatzaile: edozein herritar-erakunde, irabazi-asmorik gabeko elkarteak, enpresa-erakundeak, sindikatuak eta beren jardueraren eremua Iruñean duten profesionalen elkargoak, bakoitzaren zuzendaritza-organoak aurrez hala erabaki badu.

59. artikulua.–Herri-ekimen bat izapidetzeko behar diren sinadurak.

1. Herri-ekimen bat izapidetzeko, beharrezkoa da ekimen horrek, baliozko sinaduren bitartez, Iruñean erroldatuta dauden pertsonen gutxienerako sostengu bat lortzea.

a) Baldin eta herri-ekimenak herri-kontsulta bat egitea proposatzen badu, udalerrian erroldatutako pertsonen % 10 beharko da, eremu lokaleko herri-kontsultak arautzen dituen urriaren 28ko 27/2002 Foru Legean eta Nafarroako Foru Komunitatean deituko diren eremu lokaleko herri-kontsultetan, oro har, balioko duten boto-txartelen, bozketarako gutun-azalen, eraketa-akten eta zenbaketa-akten ereduak onesten dituen urriaren 17ko 128/2005 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera.

b) Gainerako kasuetan, hiri-eremuk herri-ekimen bat izapidetzeko, beharrezkoa izanen da, gutxienez, udalerrian erroldatuta dauden 16 urtetik gorako 1400 pertsonaren sinadurak eta sostengua lortzea. Lurralde-eremuk ekimena den kasuan (auzo bat edo gehiago), baliozko sinaduren gutxienerako kopuruak aipatutako lurralde-eremuan erroldatuta dauden 16 urtetik gorako pertsonen % 1 baino gehiagokoa izan behar du.

60. artikulua.–Eskabidearen eta sinadura-orrien aurkezpena.

1. Herri-ekimena onartzeko eskabidea Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztuko da, sinadurak biltzeko erabili diren orriekin eta artikulua honetan aurrez aipatu diren dokumentuekin batera.

2. Sinadurak biltzeko orrietan honako hauek jaso behar dira:

a) Pertsona sustatzaileen aburuz, ekimena onartzea aholkatzen duten arrazoen eta motiboen azalpena.

b) Proposatzen den ekimenaren testu osoa; beraz, sinadurak ezingo dira testu horretatik bereizita egon.

c) Nahikoa leku sinatzaileak, bere sinadura ez ezik, izen-abizenak eta Nortasun Agiri Nazionala idatz ditzan. Europako Batasunekoak ez diren atzerritarren kasuan, honako hauek jaso beharko ditu: pasaportearen edo Atzerritarren Identifikazio Txartela, jaioteguna eta bizilekua.

d) Eskatzen diren datu pertsonalen bilketaren xedeari eta datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen gainerako baldintzei buruzko informazio-klausula bat, argi eta garbi ulertzen dena.

3. Gainera, eskabidearekin batera, dokumentazio haur aurkeztu beharko da:

a) Herri-ekimenaren Sustapen Batzordea osatzen duten kideen zerrenda eta haien datu pertsonalak. Ordezkaria nor den ere adierazi beharko da.

b) Ekimena 55.2 artikuluan adierazitako erakundeetatik badator, gobernu-organoaren bileraren aktaren ziurtagiria –bertan, eskatzen den herri-ekimena sustatzeko erabakia jaso beharko da– erakundearen idazkari nagusiak edo lehendakariak sinatua.

c) Herri-ekimenean xedapen orokor bat onartzea proposatzen den kasuan, aurreko artikuluan ezarritakoaz gainera, sinadurak jasoko dituzten orrietan honako hauek ere jaso behar dira:

a) Xedapenaren testu artikulatua edo oinarrizko lerroak, non zehatz-mehatz mugatuko diren bere xedea eta artikulua inspiratu behar dituzten printzipioak eta irizpideak.

b) Pertsona sustatzaileen aburuz, xedapen orokorra izapidetzea eta onartzea aholkatzen duten motiboen azalpena.

c) Iritzia eman ahal izateko beharrezkoak diren aurrekariak.

61. artikulua.–Eskabidearen egiaztapena eta sinadura-orrien baliozkotzea.

1. Behin eskabidea jaso denean, sinadurak biltzeari ekin aurretik, Udalak egiaztatu beharko du proposatzen den herri-ekimena bat datorrela Erregelamendu honetan ezarritako betebeharrekin, eta eskabideak behar diren dokumentu guztiak dituela.

Aurkeztu den dokumentazioa guztiz osatu gabe badago, Sustapen Batzordeari, gehienez hamabost eguneko epean, jakinaraziko zaio falta diren agiriak aurkez ditzala, eta aditzera emanen zaio hala egin ezean eskabidea bertan behera uzten duela ulertuko dela.

2. Baldin eta eskabideak betebehar guztiak biltzen baditu, aurkeztutako sinadura-orriak zenbakitu, eta zigilua jarriko zaie.

3. Hiru hilabeteko gehieneko epean, eskabidea aurkeztu zen egunetik zenbatuta, Sustapen Batzordeari edo ekimenaren eskabidea sinatu zuten pertsonen jakinaraziko zaie onartu dela eskabidea izapidetzea eta sinadurak biltzeko orriak baliozkoak direla, edo, kontrara, ez dutela haren izapidetzea onartu, eta, betiere, horretarako arrazoiak azaldu beharko dituzte.

Herri-ekimenaren eskabidea onartzen ez den kasuan, Sustapen Batzordeak Iruñeko Demokrazia Parte-hartzailearen Tokiko Behatokia jo dezake, Erregelamendu honetan araututakoaren arabera.

62. artikulua.–Sinaduren bilketa, autentifikazioa eta aurkezpena.

1. Sustapen Batzordeak sei hilabeteko epean bildu behar ditu sinadurak, udal-zerbitzuek lehenengo orri multzoa baliozkotuta itzultzen dioten egunetik zenbatuta. Alkatetzak beste 60 egun luza lezake epe hori, kausa justifikatuak daudenean.

2. Orri horietan, herri-ekimena sostengatzen duten pertsonen sinadurak ez ezik, haien izen-abizenak eta Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia ere idatziko dira. Europako Batasunetik kanpoko atzeritarren kasuan, pasaportearen edo Atzeritarren Identifikazio Txartela, jaioteguna eta bizilekua jasoko dira.

3. Sinadurak notario batek, idazkari judizialak, Udaleko Idazkari Nagusiak edo hark eskuordetutako pertsona batek autentifikatu beharko ditu.

4. Sinaduren autentifikazioa, ahal izatera, bitarteko elektronikoen bidez egingen da, Udalak onartzen duen edozein sinadura-sistema erabilita.

63. artikulua.–Herri-ekimenen ondoreak.

1. Udalaren osoko bilkurako Idazkaritza Nagusiak behin egiaztatu duenean herri-ekimenak bildu duela jada beharrezkoa zen sinadura baliozkoen kopurua, ondore hauek sortzen dira:

a) Herri-ekimenean proposatzen bada herri-kontsulta baterako deia egitea, aplikatzekoa den araudian aurreikusitako onarpen-ehunekoen eta prozeduraren pean jarriko da proposamena.

b) Herri-ekimenean proposatzen bada xedapen orokor bat onartzea, hura izapidetzeko aginduko da, Udal Araudi Organikoan aurreikusitakoaren arabera.

c) Gainerako kasuetan, tratatzen duen gaiaren arabera, eskumena duen organoari pasatuko zaio, hark dagokion erabakia har dezan. Organo honek bere erabakiaren informazio publikoa emanen

du eta, iritzi hori kontrakoa bada, publikoki eta arrazoituz adierazi beharko ditu bere ezezkoaren zergatiak.

2. Edonola ere, ekimena izapidetzeko beharrezkoa izanen da txostenak lortzea, eta dagokion erabakia hartu ahal izateko eskatzekoak diren prozedura guztiak betetzea.

3. Herri-ekimenean Udalaren osoko bilkuraren erabakia eskatzen duten jarduketak proposatzen direnean, Sustapen Batzordeko kide bat joan daiteke dagokion bilkurara, bere proposamena azaltzera.

4. Herri-ekimenean xedapen orokor bat onartzea proposatzen den kasuetan, Sustapen Batzordeak bere proposamena erretiratzeko aukera izanen du bozketa egin aurretik, irizten baldin badio arau-proposamenaren azkeneko edukia tramitazioan zehar errotik aldatua izan dela hasierako proposamenarekin alderatuta.

VII. KAPITULUA

Herri-kontsulta

64. artikulua.–Herri-kontsultaren kontzeptua.

1. Herri-kontsulten bitartez, Udalak herritarren iritzia eskatzen du bere eskumeneko gaietan, eta iritzi hori zuzeneko boto aske, berdin eta isilpeko bidez adierazten da toki-esparruko herri-kontsultak arautzen dituen urriaren 28ko 27/2002 Foru Legearen edo hura ordeztzen den araudiaren esparruan.

2. Herri-kontsulta onesten den unean, udal-taldeek adierazten ahalko dute emaitzak onartuko dituzten ala ez, eta, baiezkoan, zein baldintzatan. Konpromiso hau baliozkoa izanen da parte-hartzea hautesle-eroldaren % 30 baino altuagoa bada.

65. artikulua.–Kontsultaren emaitzen aldarrikapena eta publikazioa.

Alkateak kontsultaren emaitzak aldarrikatu behar ditu, eta haien publikazioa aginduko du, bai aldizkari ofizialean eta bai udal-webgunean.

66. artikulua.–Herritarren kontsulten bateratzea.

Alkateak, Dekretu bidez, erabaki dezake urteko aldi jakin bat, non herri-kontsulta guztiak kontzentratuko diren, hala herri-ekimeneko kontsultak, nola instituzioen ekimenez deitzen direnak. Aldi hori «Herritarren Partaidetzarako Hiriko Egun» gisa markatzen den egunaren inguruan zehaztuko da, eta ezingo da aldatu agintaldiak irauten duen artean. Kasu honetan, kapitulu honetan aurreikusitako epeak bete ahal izateko xedearekin, kontsulta onartzeko erabakia Alkateak zehaztutako eguna baino hiru hilabete lehenago, gutxienez, hartuko du udal-kontseiluak.

VIII. KAPITULUA

Beste kontsulta batzuk

67. artikulua.–Beste kontsulta modalitate batzuk.

1. Auzotarren interesak hala aholkatzen duenean, Udalak auzo bateko, zenbait auzotako edota hiri osoko auzotarren iritzia eskatu ahal izanen du, inkesta, iritzi-zundaketa, sostenguen bilketa edota udal-eskumeneko gai bati buruz herritarren iritzia eskatzeko balio dezakeen beste zeinahi moduren bitartez; gainera, ondore horietarako, komunikazio interaktiboko edozein bitarteko ere erabil dezake.

2. Iruñeko udal-eroldan izena emanda dauden 16 urtetik gorako pertsona guztiek har dezakete parte herri-kontsulta horietan.

3. Herri-galdeketa onesten den unean, udal-taldeek adierazten ahalko dute emaitzak onartuko dituzten ala ez, eta, baiezkoan, zein baldintzatan. Konpromiso hau baliozkoa izanen da parte-hartzea Iruñean erroldaturik dauden 16 urtetik gorako pertsona guztien % 30 baino altuagoa bada.

68. artikulua.–Sostengu modalitateak.

1. Kontsulta-modalitateak sostenguak biltzea eskatzen duen kasuan, sostenguak aurrez aurre eta/edo era elektronikoa emanen dira. Sostenguen bilketarako arau espezifikoek ezarri behar dituzte modalitate batzuei eta besteei aplikatzekoak zaizkien prozedurak, baldintzak eta betebeharrak.

2. Pertsonaren batek bi sostengu-sistemak erabiltzen dituen kasuan, aurrez aurreko presentziak deuseztatu egiten du sostengu elektronikoa.

3. Sostenguak biltzeko bi eruedetan, honako hauek bermatu beharko dira:

a) Parte hartzen duena pertsona zuzen identifikatzea.

b) Pertsona berak behin baino gehiagotan parte ez hartzea.

c) Sostengu edo botoaren sekretua, ez dadin inolako loturarik ezartzerik egon adierazitako iritziaren eta hura eman duen pertsonaren artean.

d) Sostengu edo boto elektronikoa segurtasuna, parte-hartzearen edo emandako sostenguen aldaketa eragozteko.

e) Behar bezainbateko gardentasuna pertsona interesdunek behaketa eta gainbegiratze independente eta funtsatua aurrera eraman ahal izan dezaten.

69. artikulua.–Sostenguen kontaketa.

1. Beste kontsulta batzuetarako sostenguen kontaketa ekitaldi publiko batean egin behar da, non emandako botoen kontaketa eginen den, eta kontsultaren xedearen inguruan lortutako emaitza zehaztuko.

2. Emaitzak akta batean jasoko dira; gero, akta, organismo eskudunak sinatu ondoren, erabakitzen den Jarraipen Batzordeari entregatu beharko baitzaio.

70. artikulua.–Gune birtuala.

1. Beste kontsulta modalitateek beren isla izanen dute Herritarren Partaidetzarako plataforma digitalean.

2. Halaber eta, gardentasunaren mesedetan, kontsultaren barnean sortutako akta, erabaki eta dokumentu guztiak Herritarren Partaidetzarako plataforma digitalean eta/edo udal-webgunean argitaratuko dira.

IX. KAPITULUA

Aurrekontu partizipatiboak

71. artikulua.–Aurrekontu partizipatiboak.

1. Aurrekontu partizipatiboak prozesu bat dira, eta haietan herritarrek zuzenean erabakitzen dute zertan gastatuko den udal-aurrekontuaren zati bat. Erroldaturik dagoen 16 urtetik gorako edozein pertsonak gastu-proiektu bat proposa dezake, aurrez hautatuko dena herritarrek babesa emateko fasean.

2. Urte bakoitzeko udal-aurrekontuetan zehaztuko da horretara bideratuko den partida, baita aplikazio-eremua ere –hiria edo auzoa–. Gobernu Batzarrari dagokio Osoko Bilkurari proposatzea aurrekontu partizipatiboak egin daitezela.

V. TITULUA

Lankidetzaren publiko-soziala

I. KAPITULUA

Herritarren eta udalaren arteko lankidetzaren

72. artikulua.—Lankidetzaren publiko-sozialaren kontzeptua eta helburuak.

1. Lankidetzaren publiko-soziala joko dira herritarren, erakundeen eta irabazi-asmorik gabeko herritarren kolektiboaren eta Iruñeko Udalaren arteko hainbat lankidetzaren modu, bi aldeentzat interes erkidekoak diren jarduerak garatzeari begira, betiere, onura orokor bat sortzeko helburuarekin. 2. Lankidetzaren publiko-sozialaren helburuak hauek izanen dira:

a) Gai publikoaren kudeaketaren demokratizazioa indartzea, herritarrekin, erakundeekin eta irabazi-asmorik gabeko herritarren kolektiboekin egiten den lankidetzaren eta kogestioaren eredu baten bitartez, horiek guztiak hiriarekin eta herritarrekin konprometitutako udal gobernantzako subjektu aktibo bihurtzen dituela.

b) Herritarrak baliabide eta ondasun publikoetara heltzen direla bermatzea, ondasun horien erabilpena eta jasagarritasuna optimizaturik, Iruñeko herritarrei onurarik handiena ekartzeko xedearekin.

c) Gizarte-berrikuntza, gora datozen gizarte-ekimenen garapena eta erkidegoaren onerako diren proiektuen koprodukzioa bultzatzea.

d) Arlo erkidearen garapenerako espazio berriak sustatzea, irabazi-asmorik gabeko erakundeekin eta herritarren kolektiboekin hitzartuta.

e) Espazio publikoak eta ondasun erkideak zaintzen eta eraberritzen laguntzea.

f) Gizarte-koheretza egituratzea eta hobetzea, eta Iruñeko auzoetako gizarte- eta lurralde-desorekak arintzea, Iruñearen izaera anizkuna sozialki koheretatu duen bizikidetzaren sustatzen lagundurik.

2. Ez da zerbitzu publikorik emanen, ezein kasutan, lankidetzaren publiko-sozialaren bidez.

73. artikulua.—Lankidetzaren publiko-sozialaren definizioak.

1. Erregelamendu honen ondoretarako, hona zenbait definizio:

a) Onura orokorra edo erkidea: herritarrek, oro har, goza dezaketena edo hiriko bizi-kalitatearen hobekuntza dakarrena.

b) Kudeaketa partekatua: udal-zerbitzuen garapenerako, udal-jabetzako tresneria eta ondasun higiezinaren erabilerarako, eta interes publiko eta sozialeko programa, proiektu eta udal-jarduketarako kudeaketa modalitatea, Iruñeko Udalak gauzatzen duena erkidegoaren mesedetan, eta non herritarrek parte hartzen duten, hainbat mekanismoren bitartez, haien garapenerako etapa batean edo gehiagotan: definizio eta diseinuan, plangintzan, inplementazioan eta garapenean, jarraipenean eta ebaluazioan.

c) Kogestioa: jarduketa praktikoa bat abian jartzeko modalitatea, non elkarrekin parte hartzen duten, kasu bakoitzerako ezartzen den adostutako esku-hartze mailaren arabera, Iruñeko Udalak, alde batetik, eta Iruñeko herritarrek bestetik, irabazi-asmorik gabeko erakunde eta kolektiboaren bitartez.

d) Herri-kudeaketa: jarduketa bat eta/edo udal-jabetzako espazioaren erabilera bat praktikan jartzeko modalitatea, erkidegoaren mesedetan interes publikoa eta soziala duten proiektuak garatzeko helburuarekin, eta egonkortasun eta jarraipen bokazioa duena. Horren garapenean, protagonismo absolutua dute bertan parte hartzen duten erakundeek eta pertsonak.

e) Gizarte-berrikuntza: merkatuak edo sektore publikoak gaur egun behar bezala erantzuten ez dien –edota egungo egoeran baino eraginkortasun handiagoz erantzun dakiekeen- beharrian sozialak edo kolektiboak betetzeko modua. Iruñeko Udalaren eta herritarren arteko lankidetzan oinarritzen da modalitate hau; gizarte-harreman edo elkarlan berriak sortu nahi ditu, eta auzotarrak ahalduntzeko helburua du.

f) Koprodukzioa edo elkarren arteko sorkuntza: udal-jarduketa baten garapen, diseinu edo planteamendu modalitatea, Iruñeko Udalaren eta herritarren artean elkarrekin gauzatzen dena; modalitate honen bitartez, prozesuaren emaitza herritarren eskaeretara modu eraginkorragoan egokitzea lortu nahi da.

Jarduketa publiko-sozialeko edozein modalitatetan, non protagonismo handiena erakundeek edo herritarrek duten, Iruñeko Udalaren gutxieneko jarduketa udal-zerbitzura edo -ondasunera edozein pertsonari sarbidea bermatzea izanen da, jakina, pertsona horrek parte hartzeko interesa baldin badu eta Iruñeko Udalak hiriaren eta/edo herritarren zerbitzuan jartzen duen baliabidera heltzeko irizpideak eta betebeharrak betetzen baditu.

Lankidetzaren publiko-sozialaren edozein modalitatetan, lokalen lagapena entitateei eginen da ordenamendu juridikoak ondasun publikoak erabiltzeko ezartzen duenarekin bat, eta dagozkion administrazio-egintzak eginda.

74. artikulua.–Lankidetzaren publiko-sozialaren printzipio orokorrak.

1. Lankidetzaren publiko-sozialaren esparruan garatzen diren jarduketek honako printzipio hauek izanen dituzte goiburua:

a) Gardentasuna eta publikotasuna: lankidetzaren publiko-sozialaren esparruan jarduerak abian jartzeko beharrezkoak diren prozesuei Udalak emanen die zabalkundea, prozesu bakoitzari buruzko behar bezainbateko informazioa eman dadin eta irabazi-asmorik gabeko edozein erakunde edo bakarka parte hartu nahi duen edonork jakin dezan zer baldintzatan eta zer betebeharrak eskatuko zaizkien prozesu horretan parte hartzeko. Printzipio hori eraginkorra izan dadin, Iruñeko Udalak helburu horiek erdiesteko nahikoa izanen diren publikitate-kanalak erabiliko ditu, hala nola lizitazio elektronikoko plataforma, web orria edota udalaren sare sozialak.

b) Lehia eta objektibotasuna: lankidetzaren publiko-sozialeko prozesuak ezartzen dituzten xedapenek aurreikusi beharko dute prozesu horiek herritar guztien eta hala nahi duten herritarren eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen ahalik eta parte-hartze eta lehia handiena ahalbidetzeko moduan garatuko direla; bestalde, prozesuak, parte-hartzaileak eta jarduerak hautatzeko irizpide objektiboak erabiliko dira, eta lehentasuna emanen zaie parte-hartzaile gehien inplikarazten duten proposamenei eta, espazio berean bateragarriak izanik, interes publikoko ekintza gehien proposatzen dutenei.

c) Erantzukizuna: lankidetzaren publiko-sozialeko jardueren garapenean sortzen diren harremanak honetan oinarrituko dira: alde bakoitzak bere gain hartuko du gizartearentzat, oro har, onuragarria izanen den emaitza bat lortzen laguntzeko ardura, eta, era berean, erantzukizunez jokatu behar duten alde bakoitzari dagozkion elkarrenganako obligazioak betetzeko orduan.

d) Jasangarritasuna: Iruñeko Udala arduratuko da jarduerak jasangarriak izan daitezen, hala ingurumenaren ikuspegitik nola ikuspuntu ekonomiko eta sozialetik, bai administrazioarentzat eta bai proiektuetan parte hartzen duten herritar eta erakundeentzat, betiere hiriko bizi-kalitatearen hobekuntzan laguntzen dutela.

e) Autonomia: herritarren eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen parte-hartzea borondatezkoa izanen da, eta lankidetzaren horrek ez du berarekin ekarriko Iruñeko Udalarekin inolako kontratu- edo lan-loturarik izatea.

f) Lankidetzaren publiko-sozialeko prozesuak: herritarren eta herritarren erakundeen arteko lankidetzaren sustatuko da lankidetzaren publiko-sozialeko prozesuak diseinuan eta garapenean, hiriko elkarte-ehuna indartzeko eta artikulatzeko balio dezakeen neurri gisa.

g) Elkarrekiko konfiantza: prerrogatiba publikoen kaltetan izan gabe, Udalak eta herritarren erakundeek elkarrekiko konfiantzan oinarrituta eraikiko dituzte beren arteko harremanak, eta interes orokorreko helburuak lortzera zuzendutako lankidetzarako borondatez.

h) Irisgarritasun unibertsala eta arrazoizko doiketak.

i) Ekitatea eta berdintasuna: aukera-berdintasuna bermatzea, diskriminazio positiboa sustatuz diskriminazio edo bazterketarako arrisku handiena duten pertsona edo kolektiboentzat.

j) Koherentzia: sustatutako ekimenak lurralde-eremura eta parte hartzen duten erakundeen ezaugarrietara egokitzen direla bermatzeko.

75. artikulua.–Lankidetzaren publiko-sozialaren sustapena eta bertan parte hartzea.

1. Lankidetzaren publiko-sozialeko jarduerak sustatu, eta horietan parte hartu ahalko dute ondorengo subjektu hauek:

a) Iruñeko Udalaren aldetik: sustatu nahi den arlo bakoitzean eskumenak dituen edozein organok.

b) Herritarren aldetik, irabazi-asmorik gabeko herritarren erakunde eta kolektiboek.

2. Lankidetzaren publiko-sozialeko jardueren garapenean parte hartu ahal izanen dute, era osagarrian, beste hauek ere:

a) Beste Administrazio Publiko batzuek edo zuzenbide publikoko erakundeek.

b) Pertsona fisiko edo juridikoek, zuzenbide pribatuko subjektuek, artikuluko honetako 1. b apartatuan aurreikusten direnez bestelakoek, ekonomia sozialeko erakundeak barne.

76. artikulua.–Irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta kolektiboak.

1. Irabazi-asmorik gabeko erakundetzat hartuko dira elkarteak, fundazioak edo kooperatibak izan daitezkeen pertsona juridikoak, baldin eta beren estatutuetan jasota badago ez dutela irabazi-asmorik eta, izatez, inolako jarduera ekonomikorik ez badute, edo, izanez gero, jarduera horren emaitza erakundearen estatutuetan ezarritako interes orokorreko helburuak betetzeko soilik bada, onura zuzeneko edo zeharkakorik banatu gabe elkarteko kideen edo hirugarrenen artean.

2. Irabazi-asmorik gabeko herritarren kolektibotzat hartuko dira hiru pertsona fisiko edo gehiagoko elkarteak, aurreko apartatuan aurreikusten direnen bestelakoak, garatzen dituzten jarduerak irabazi-asmorik ez dutenean eta zuzeneko edo zeharkako onuren banaketarik egiten ez denean, elkarteko kide diren pertsonen artean.

3. Aplikatzekoa den araudiak eskatutako betekizunen kaltetan izan gabe, irabazi-asmorik gabeko herritar-erakundeek eta herritarren kolektiboek, lankidetzaren publiko-sozialeko jarduerak gauzatu ahal izateko, ondorengo hauek bete behar dituzte:

a) Egoitza soziala Iruñeko udalerrian edukitzea eta/edo bere jarduera udalerrin horretan garatzea.

b) Interes orokorra sustatzeko helburuak izateaz gainera, hona zer izaera izan dezaketen: zibikoa, hezkuntzako, zientifikoa, kulturala, kirol-arlokoa, osasun-arlokoa, balio demokratikoak sustatzeko, giza eskubideak sustatzeko, herritarren parte-hartzea, boluntarioritza soziala sustatzeko, berdintasuna, emakumeen sustapena, emakumeen kontrako indarkeriaren eta LGTBIfobiaren aurkako borroka, aniztasuna eta tolerantzia sustatzeko, gizarte-ekintza, bazterketa-arriskuan dauden pertsonak sustatu eta artatzeko, haur eta gazteak sustatu eta babesteko, adineko pertsonak sustatu eta babesteko, ingurumena aldeztzeko, jasangarritasuna, garapenerako lankidetzaren publiko-sozialeko erakundeak, ekonomia soziala edo ikerketa sustatzeko, kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesteko, eta antzeko beste zeinahi elkarte.

77. artikulua.–Lankidetzaren publiko-sozialaren esparrua.

1. Udalak lankidetzaren publiko-soziala sustatuko du interes orokorreko jarduerak garatzeko, betiere, bere eskumenen barruan, onura orokorra edo erkidea baldin badaukate. Aipatutako jarduerak, beste batzuen artean, ondoren aipatzen diren esparruetan garatu ahalko dira:

a) Herritarren parte-hartzearen sustapena honako hauetan: udal-politika publikoen formulazioan, diseinuan eta aplikazioan, herritar aktiboaren sustapenean, informazioaren eta komunikazioen teknologien erabileran, hain zuzen ere, tresna baliagarri izan daitezkeen partaidetzarako, garapenerako eta gizarte- eta lurralde-orekarako.

b) Politika publikoen hobekuntza eta politika horiek herritarren eskaeretara egokitzea.

c) Kulturaren sustapena: kultur sorkuntza bultzatzea eta proiektu kulturalak, esperimenduzkoak eta hiriko arte-sorkuntzakoak garatzea, kultur jaialdi, festa eta ekimenen garapena, hurbileko kultur eredu baten garapena eta herritarren kulturarako sarbidea gizarte-berrikuntzarako eta egituratze eta gizarte- eta lurralde-kohesiorako mekanismo gisa.

d) Honako hauen sustapena: Giza eskubideak, justizia soziala, justizia historikoa, berdintasuna, mota orotako indarkeriaren kontrako borroka, emakumeen kontrako indarkeria eta LGTBIfobiaren aurkako borroka eta balio demokratikoak (balio horiek zabaltzeko eta sendotzeko buruzkoak).

e) Osasun publikoaren babesa: bizitzako ohitura osasungarriak sustatzeko eta osasunerako heziketari buruzkoak.

f) Kirolaren eta aisialdia okupatzekoaren sustapena, gizarte-koehesiorako, erkidegoaren garapenerako eta barrutien lurralde-orekarako tresna izan daitezkeen dinamizazio eta integrazio sozialaren eta balio zibiko-sozialak sustatzeko bitartez.

g) Hirigintza: espazio publiko edo ondasun erkideen kontserbazioari, birgaitzeko eta eraberritzeko buruzkoak, gizarte-berrikuntza, hiri-sormena, irisgarritasun unibertsala, arazoizko doikuntzak eta hiriaren gizarte- eta lurralde-koehesioa sustatzeko xedearekin.

h) Hiriko ingurumena: ingurumenaren babesa sustatzeko, ingurumen-heziketari, hiriko bizi-kalitatea hobetzeko, energiaren erabilera eraginkor eta jasangarriaren sustapenera eta energia berriztagarrien erabilera sustatzeko buruzkoak.

i) Zientziaren, ekonomia sozial eta solidarioaren, lankidetzaren eta garapeneraren sustapena, bizi-kalitatea hobetzeko, gizarte-koehesiorako eta lurralde-orekarako mekanismoak diren neurrian.

2. Iruñeko Udalak lankidetzaren publiko-soziala sustatuko du zenbait jardueraz osatutako eta aurreko apartatuan deskribatutako esparru batean edo gehiagotan integratuta dauden lurraldeko ekimenak garatzeko.

78. artikulua.–Lankidetzaren publiko-sozialerako herritarren erakundearen udal errolda.

1. Iruñean lankidetzaren publiko-soziala errazteko helburuarekin, Herritarren Erakundearen Udalerrolda sortuko da.

2. Erroldan izena eman ahalko dute lankidetzaren publiko-sozialeko proiektuak abian jarri nahi dituzten herritarren erakunde guztiek.

79. artikulua.–Lankidetzaren publiko-sozialerako tresnak.

1. Erregelamendu honetan xedatutakoari edota 70. artikuluan adierazitako lankidetzaren publiko-sozialaren goiburua diren printzipioei kontra egiten ez dien bitartean, lankidetzaren publiko-soziala indarrean dagoen araudian aurreikusitako edozein tresnaren bidez artikulatu ahalko da eta, bereziki, ondorengo hauetako baten edo batzuen bitartez:

a) Parte-hartze tresnak: hauen xedea da interes orokorrekotzat jotzen den edozein gairi buruz herritarrek eta herritar-erakunde eta -kolektiboek zer iritzi duten jakitea da, edota Udalerrolda organo-

etan haien esku-hartzea ahalbidetzea, horrela udal-kudeaketari demokratizazio handiagoa ematen zaiolarik.

b) Tresna konbentzionalak: hauen xedea da esparru juridiko bat ezartzea, zeinaren bitartez Iruñeko Udalak irabazi-asmorik gabeko erakundeekin eta herritarren kolektiboekin –eta, kasua hala denean, Erregelamendu hau aplikatzekoa zaien gainerako subjektuekin– adosten duen jarduerak gauzatzea edo bitartekoak jartzea herritarren interes orokorrari on egiten dion interes erkide bat lortzeko.

c) Sustapenerako tresnak: lankidetzak publiko-sozialeko jarduketak garatzeko, Iruñeko Udalak dirulaguntzak eta beste laguntza batzuk eman ahalko ditu, mesedegarri izan daitezkeen erabilgarritasun publiko edo interes sozialeko helburuak lortzeko eta jarduketa horien finantza-sostengurako. Halaber, zerga-arloan indarrean dagoen araudiaren arabera, Udalak onura fiskalak ezarri ahalko ditu udal-ordenantzetan.

d) Ondarea kudeatzeko tresnak: hauen bitartez Iruñeko Udalak ondasun higigarrien nahiz higiezinaren aldi baterako erabilera baimendu ahal izanen die irabazi-asmorik gabeko herritarren erakunde eta kolektiboek, lankidetzak publiko-sozialeko jarduketarako.

e) Ohorezko tresnak: horrelako tresnen xedea da Iruñeko herritarrentzat, oro har, erregelamendu honen esparruan garatutako proiektu, erakunde edo herri-ekimen batek egindako ekarpen baliotsuaren aitortza publikoa egitea.

II. KAPITULUA

Lankidetzak publiko-sozialeko jarduerak

80. artikulua.–Lankidetzak publiko-sozialeko jarduerak.

1. Ordenantza honen aplikazioan gara daitezkeen beste jarduera batzuen kaltetan izan gabe, Iruñeko Udalak lankidetzak publiko-sozialeko ondorengo jarduera hauek sustatuko ditu:

a) Herritarren kudeaketako edo kogestioko jarduerak.

b) Ondasun erkidearekin lotura duten dibulgazio-jarduerak.

c) Ondasun erkidearen eremuan elkarrekin sortutako jarduerak.

d) Festak, jaialdiak eta kultur ekimenak garatzeko kultur jarduerak, herritarren parte-hartze irekia eta inklusiboa ahalbidetzeko.

e) Kontserbazio-jarduerak: espazio baten, edo ondasun higigarri zein higiezin baten mantentze-lan, zainketa eta oinarrizko garbiketarako, ondasun horiek erabilera erkideko helburu sozialetarako erabili ahal izateko.

f) Birgaitze-jarduerak: espazio edo ondasun higigarri zein higiezin baten erabilera berreskuratzeko egiten direnak, irisgarritasun unibertsala izan dezaten.

g) Eraberritze-jarduerak: erabat edo partzialki abandonatuta dauden espazio edo ondasun higigarri zein higiezinetan egiten direnak, haiek leheneratzeko, auzotar guztiek goza ditzaten edo delako ondasunei erabilera publikoa emateko, irisgarritasun unibertsalez horniturik eta erabilera erkiderako.

h) Gardentasuna eta kalitate demokratikoa sustatzen duten jarduerak, tresna pedagogikoen eta herritarren emantzipazioa bultzatzen dutenen bidez, tokiko prozesu demokratikoak bermatzearen, ordezkartza maila guztietan.

2. Lankidetzak publiko-sozialeko jarduerak egiteak ez du, ezein kasutan, kontratu- edo lan-harreman bat izatea ekarriko herritarren eta/edo erakunde parte-hartzaileen eta Iruñeko Udalaren artean, eta guztiek ahalegina egiten dute irisgarritasun unibertsala izan dezaten.

81. artikulua.–Lankidetzako publiko-sozialeko jardueretarako proposamenak hautatzeko prozedura.

1. Deialdi publiko baten bidez, zeina herritarrek eskatua izan baitaiteke edota Udalak berak bultzatua, Iruñeko Udalak eskura dituen espazio edo ondasun higigarri zein higiezinetan egin daitezkeen lankidetzako publiko-sozialeko jardueri buruzko proposamenak eskatuko ditu, eta prozesu horretan gizarte-berrikuntza eta elkarren arteko sorkuntza sustatuko da.

Haien emaitza modura, espazio, eraikin edo ondasunean eginen den lankidetzako publiko-sozialeko jarduerak mota erabaki eta ezarriko da.

Espazio berari buruz proposamen bat baino gehiago jasotzen diren kasuan, Udalak parte-hartze prozesuak sustatuko ditu espazio, eraikin edo ondasun beraren kudeaketa partekatuko duten ekimen eta elkarteek proiektuak aurkezteko duten aukera berma dadin, elkarte eta erakunde horien artean lankidetzako sinergiak sortzeko xedearekin.

2. Lankidetzako publiko-sozialeko jarduerak mota –bat edo gehiago– zehaztu eta erabaki deanean, proiektuak hautatuko dira, izaera orokorrean, lehia publikoaren arabera prozesu baterako deiturik.

3. Ondoren, proposatutako jardueren gaia edo arloa, haiek egiten diren espazio, eraikin edo ondasunen ezaugarriak, jarduerak sustatzen dituzten herritarren erakunde edo kolektiboaren ezaugarriak edota lurraldean zenbateraino errotuta dauden kontuan harturik eta arrazoi eta motiboak behar bezala azalduta, zuzenean hautatu ahalko dira aurkeztutako proposamenak.

4. Lehia bidezko prozesuak sustatzen direnean, deialdian, gutxienez, honako hauek jaso beharko dira:

a) Parte har dezaketen irabazi-asmorik gabeko herritarren erakunde eta kolektiboak; Herritarren Erakundearen Udako Erregistroan izena emanda egotea baloratuko da.

b) Espazio, eraikin edo ondasunen erabilerrako araubide juridikoa eta ekonomikoa, kasua hala bada. Nolanahi ere, espazio, eraikin edo ondasunen mantentze-lan eta kontserbazioko gastuen finantzaketa arautu beharko da.

c) Aurkeztu beharreko eskabidearen edukia eta dokumentazioa, zeina udal-webgunean argitaratutako prozeduren katalogoan zehaztuko baita; horien artean egongo dira, gutxienez, espazioan garatuko den jardueraren proiektuaren deskribapena, eskatzen den erabilera mota eta erabakiak hartzeko sistema.

Zenbait erakunde edo ekimenen artean ondasun baten erabilera partekatua eskatzen den kasuan, erakunde bakoitzeko organoen eta kolektiboaren ordezkarien adostasuna justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, parte hartzen duten erakunde eta kolektibo guztiek erantzukizun solidarioko araubide bat eta gobernantza-eredu parte-hartzailea, inklusiboa eta demokratikoa onartu beharko dute, eta administrazioaren aurrean izanen duten ordezkaria identifikatu ere bai.

d) Proiektuak hautatzeko irizpideak eta aplikatu behar diren baldintzak. Hautespenean irizpide egokiak erabiliko dira egiten diren jardueren arabera, eta horien artean, gutxienez, honako hauek egongo dira:

–Aurkeztutako proiektuak erregelamendu honetan definitu diren lankidetzako publiko-sozialaren helburu berberak izatea.

–Erabakiak hartzeko espazio ireki bat egon dadila.

–Jarduerak Iruñeko hirirako izanen duten eragin positiboa.

–Ondasunean egiten diren jarduerak herritar guztientzat irekiak eta inklusiboak izatea, irisgarritasun unibertsala bermatzera zuzendutakoak egotea eta, ahal bada, doakoak izatea.

–Gizartearen antolaketa eta herritarren erakundeen eta kolektiboen arteko lankidetzak akuita dezatela.

–Lurralde-orekan, berdintasunean eta justizia sozialean eragina izatea.

–Giza eskubideen errespetua, eta haiek baliatzeko aukera susta dezatela.

e) Baldintzak eta iraupen-epaia.

f) Ondasunaren erabilerarako baldintza orokorrak, kasua hala denean.

g) Eteko zergatiak, eta ondasuna erabiltzeko baimena zer kasutan itzuli beharko den.

h) Zigor-araubidea.

5. Kirolaren, kulturaren eta hezkuntzaren arloko hurbileko espazio publikoen kudeaketak edo kogestioak, alde aurretik, Udalak oinarri-eredu bat onartzea eskatuko du non jasoko diren sektorearen arabeko erregulazio espezifikoak, araubide juridikoa eta ekonomikoa, xede-eremua, zer erakunderi zuzenduta dagoen, kirol-jarduerak egiteko baldintzak, epea, hautespen-prozedura eta proposamenak baloratzeko irizpideak.

6. Lankidetzak publiko-sozialeko jarduerak Udalak kontratazio publikoetan sustatzen dituen irizpide sozial berberak eduki beharko dituzte kontuan, bai herritarren erakunde edo kolektiboen betebeharrak gisa, bai lankidetzak hitzarmenetan, eta bai proiektuak hautatzeko irizpide gisa ere. Horretarako, behar diren egokitzapenak egin ondoren, udal-kontratazioan klausula sozialak gehitzeari buruzko jarraibideetan eta beste xedapenetan ezarritakoa aplikatu beharko da.

7. Lehia publikoko prozesuen deialdiak eta horien emaitzak Udalaren webgunean eta/edo herritarren partaidetzarako web orrian argitaratuko dira. Deialdiaren ebazpena argitaratzen denean adieraziko da zer puntuazio lortu duen lehiatu den erakunde eta ekimen bakoitzak hautespen-irizpide bakoitzean.

82. artikulua.–Lankidetzak publiko-sozialak formalizatzeko prozedura.

1. Espazio eta ondasun higitari zein higiezinak kontserbatzeko, eraberritzeko eta birgaitzeko lankidetzak publiko-sozialeko jarduerak lankidetzak hitzarmen baten bitartez formalizatuko dira. Bertan zehaztuko dira alde sinatzaileek hartzen dituzten konpromisoak, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan araututako betebeharrak guztiak bildu beharko ditu.

2. Alde sinatzaileen ekarpenak hitzarmenean adosten direnak izanen dira, eta udalaren aldetik hauek izan daitezke: hitzartutako jardueretarako espazio edo zuzkidura publikoak, ondareak, materialak edo zerbitzuak eskaintzea.

III. KAPITULUA

Gizarte berrikuntzaren sustapena

83. artikulua.–Gizarte-berrikuntzaren sustapena.

1. Lankidetzak publiko-sozialak gizarte-berrikuntza sustatuko du estali gabeko edo gora datozen beharrezko sozialak hauteman diren eremuetan, irtenbideak eskatzen dituztenean, eta oraindik erantzunik ez dutenak; balio publikoa sortzen dutenak eta herritarrengan eragin dutenak.

84. artikulua.–Sariak gizarte berrikuntzari.

1. Gizarte Berrikuntzako sarietarako deialdiak egin ahalko dira irabazi-asmorik gabeko erakunde eta kolektiboentzako sariak deialdien bitartez; deialdian zehazten diren arazoei edo erronka sozialei erantzuna ematen dieten proiektu berritzaileak sarituko dira.

2. Aurkezten diren proiektuen balorazioak ondorengo irizpide hauek hartu beharko ditu kontuan:

- a) Zenbateko berrikuntza izanen duten.
- b) Aurreikuspenen arabera, zenbateko gizarte-eragina izanen duten.
- c) Bideragarritasuna eta jasagarritasuna, hala ekonomikoa nola ingurumen-arlokoa.

3. Deialdia Iruñeko Udalak eta bere Organismo Publikoek dirulaguntzak emateko xedatuta dutenaren arabera egingen da.

85. artikulua.–Gizarte-berrikuntzako proiektuen garapena.

Ideia berritzaileak bultzatzeko eta sustatzeko xedez, eta herritarren erakunde eta kolektiboak beren proposamenetan sostengatzearen, sarien osagarri modura, deialdian jaso daiteke, orobat, saritutako proiektuak aurrera atera daitezela erregelamendu honetan aurreikusitako lankidetzaren publiko-sozialeko tresnaren baten bitartez.

IV. KAPITULUA

Sostengua partaidetzari, herritarren erakundeei eta herritar aktiboek

LEHEN ATALA

Sostengua herritarren erakundeei eta herritar aktiboek

86. artikulua:

1. Udalak interes orokorreko helburuak lortu nahi dituzten herritarren erakundeak (elkartek eta federazioak, konfederazioak, elkarteen eta beste erakunde edo kolektiboen batasunak), herritar aktiboak eta boluntarioak sustatuko ditu, betiere, erakunde horien askatasuna eta botere publikoekiko autonomia errespetaturik.

2. Interes orokorreko helburuak lortu nahi dituzten elkarte eta erakundeen jarduerak ezagutarazi eta aitortuko dira, eta laguntza- eta prestakuntza-mekanismoak, informazio-zerbitzuak eta zabalkunde-kanpainak sustatuko dira, betiere, elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan eta hori garatzen duen foru-araudian ezarritakoarekin bat baldin badatoz.

3. Iruñeko Udalak, bere aurrekontu-ahalmenen barruan, baliabideak eskainiko ditu herritarren erakundeei dagozkien jarduketaren gauzatzea bultzatu eta sustatzeko, ondoren zerrendatzen diren helburuekin:

- a) Sendotze soziala, beren jarduteko ahalmena hobetzeko eta beren proiektuetara pertsona gehiago bil dadin.
- b) Sendotze ekonomikoa, beren autonomia hobetzeko, eta herritarrentzat interesa duten jarduerak sortzeko ahalmena izan dezaten.
- c) Sendotze demokratikoa, elkarteen barne-funtzionamendu demokratikoa hobetzeko xedearekin.
- d) Elkarteen eta herritar-taldearen arteko lankidetzaren sendotzea.
- e) Tokiko organoetan parte-hartzea sendotzea.

4. Era berean, aipatutako herritarren erakundeei eta herritar aktiboek dirulaguntzak eta beste laguntza batzuk lortu ahalko dituzte tokiko intereseko jarduerak eta proiektu espezifikoak garatzeko.

BIGARREN ATALA

*Espazioen kudeaketa***87. artikulua.–Lankidetzak publiko-sozialeko jardueretarako espazioen lagapena: Esparrua.**

1. Izaera orokorrean, Iruñeko Udalak interes publiko eta sozialeko jardueren eskura jartzea erabaki ostean, lankidetzak publiko-sozialeko jardueretarako erabiliko diren espazioen lagapena –izan daiteke era iraunkorrean edota puntualean– arautuko duten xedapenak kapitulu honetan xedatutakoaren arabera erregulatuko dira.

Erregulazio honek ez du indarririk izan beste ordenantza batzuek beste mota batzuetako lagapenetarako erregulazio espezifikokoak dituztenean.

1.–Iruñeko Udalak bere ondasun higigarrien zein higiezinen aldi baterako erabilera baimendu edo laga ahalko die irabazi-asmorik gabeko herritarren erakundeei edo kolektiboari, lankidetzak publiko-sozialeko jarduerak egin ditzaten, Nafarroako Toki Erakundearen ondasunei buruz indarrean dagoen foru-araudian xedatzen denarekin eta Udalean jatorria duten arauetan eta jarraibideetan aurreikusten denarekin bat etorri.

2.–Erabilera-baimenak edo lagapenak doakoak izan daitezke, edo prezioarekin; hori dagokion deialdiak, hitzarmenak, ordenantzak edo prezio publiko edo tasen arauak zehaztuko du.

88. artikulua.–Araubide Juridikoa.

1. Erregelamendu honek aurreikusten dituen erabilera-baimen edo lagapenen erregulazio juridikoa Nafarroako Administrazio Lokalari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea doitu da, ondasun motaren arabera.

2. Erabilera-baimenek eta lagapenek ezingo dituzte lagapenari aplikatzekoa zaion legeak baimentzen dituen epeak gainditu.

89. artikulua.–Lankidetzak publiko-sozialeko jardueretarako erabiliko diren lokal, espazio eta eraikin publikoen zerrenda.

1. Jarduketan gardentasuna eta publikotasuna bermatzeko helburuarekin, lokal, espazio eta eraikin publikoak lagatzeko edo baimentzeko araudiaren gehigarri modura –espazio horien erabilera-baldintzak arautuak daude jada, prezio publiko edo tasen arauetan, zehazki–, Iruñeko Udalak, urtean behin, gutxienez, lankidetzak publiko-sozialeko jardueretarako erabilitea erabaki duen udal-jabetzako lokal, espazio eta eraikinen zerrenda prestatu eta eguneratuko du; espazioak era iraunkorrean edo puntualean laga daitezke, espazio bakoitzari dagozkion ezaugarriak eta baldintzak kontuan hartuta.

2. Zerrenda hori udal-webgunean eta/edo Herritarren Partaidetzarako web orrian argitaratuko da eta, bakoitzaren kasuan, gutxienez, kokapena, azalera, hirigintza-erabilera eta, hala badagokio, zertarako erabili nahi den adieraziko da.

90. artikulua.–Erabilera-baimenen edo lagapenen xedeak.

1. Iruñeko Udala saiaturiko da lokal eta espazio horiek lankidetzak publiko-sozialeko jarduerak egiteko lagatzen, eta herritarren erakundeek xede horretarako erabil ditzaten. Espazioen lagapenetan, toki horien erabilera partekatua eta espazioen erabilpen optimoa lehenetsiko dira.

2. Udal-jabetzako lokal eta higiezinen lagapena eta erabilera xede hauetara bideratuko dira:

a) Irabazi-asmorik gabeko herritarren erakundeek udal-jabetzako higiezinak edo lokalak erabil ditzaten sustatzera, jarduera erkidegoaren onurarako eta hiriaren eta auzoen garapena bultzatzeko izan dadin.

b) Bizitza publikoa dinamizatzeko, herritarren parte-hartzea sustatzeko eta lurraldean erkidego-ekintza bultzatzeko kultura-, prestakuntza-, informazio-, hezkuntza-, kirol- eta jolas-arloko eta ekonomia sozialeko jarduera sozialen garapena laguntzera.

c) Ahal den neurrian, herritarren erakundeen artean, udal-jabetzako higiezinak edo lokalen kudeaketa partekatua bultzatzera, baliabide publikoen erabilera eraginkorra eta lurraldean lan egiten duten erakundeen arteko lankidetzak sinergiak sustatzeko.

d) Erabiltzen ez diren edo gutxi erabiltzen diren udal-jabetzako higiezinak edo lokalak erabiltzera. Lagapen horietan oinarrituta egiten diren jarduerak ez dira inoiz izanen ohiko zerbitzuen kontratu bati dagozkionak edo zerbitzu publiko baten kudeaketakoak.

91. artikulua.–Espazioen lagapenera bil daitezkeen erakundeak.

1. Udal-jabetzako higiezinak eta ekipamenduak erabili ahal izateko, ezinbesteko baldintza izanen da erakunde interesduna legez eratuta egotea, irabazi-asmorik gabekoa izatea eta lankidetzak publiko-sozialeko proiektu bat planteatzea Iruñeko Udalari, erregelamendu honetako 77. artikuluan ezarritako baldintza eta terminoetan.

Udal-webgunean eskura egongo den prozeduren katalogoan, udal-espazioen lagapena izenaren barnean, adierazten diren datuak eta dokumentazioa jaso beharko dira aurkezten diren eskabideetan.

Edozein modutan, ondorengo dokumentazioa ekarri beharko da:

a) Jardueren proiektua, zeinak justifikatu beharko baitu eskatutako baimen eta lagapen mota ongi egokitzen dela egin nahi diren jardueretara.

b) Baimenaren edo lagapenaren xede den ondasunean obrak egin behar badira, haien memoria, planoekin eta zenbatesten den aurrekontuarekin batera.

c) Eskatzen den espazioaren erabilera mota (partekatua edo ez).

d) Erabilera partekatua den kasuan, interesa duten erakundeen zerrenda aurkeztu behar da, eta adierazi beharko da zein erakunde hartuko duen bere gain baimenaren edo lagapenaren titulartasuna, eta erakunde bakoitzeko organoak bat datozela erabaki horrekin.

92. artikulua.–Esleitzeko irizpideak.

1. Udal-jabetzako higiezinak edo lokalen baimena edo lagapena aurkeztutako proiektuak aztertu ostean egiten da, eta esleipenetan ondorengo irizpide hauek hartuko dira kontuan: •

a) Beren jarduera Iruñean garatzea; gainera, baloratu egiten da erakundea zenbateraino dagoen errotuta eta bere lana auzo inguruan egiten duen.

b) Aurkeztutako proiektuak lankidetzak publiko-sozialekoak izatea, herritarren parte-hartzea eta erkidego-ekintza bultzatzea edota xede hauek izatea: hiriko bizi-kalitatea hobetzea, berdintasuna aldeztzea, gizarte-bazterketaren kontra borrokatzea edo Iruñeko biztanleei onura ekarriko dieten eta udal-eskumenekoak diren interes sozialeko helburuen alde aritzea.

c) Eskatutako espazioaren erabilera partekatua izatea, betiere erakunde eskatzaileen jarduerak bateragarriak badira.

d) Erakundeek egiten dituzten jarduerak, gehienak behintzat, irekiak, doakoak eta inklusiboak izatea. Irizpide horiek erakundeen arteko lehia gertatzen denean erabiliko dira, eta zuzeneko esleipena egiten den kasuetan, lehia falta justifikatua dagoelako; eskaera egin duen herritarren erakundeak ezarri diren baldintzak bete beharko ditu.

93. artikulua.–Esleitzeko prozedura.

1. Erabilera-baimenerako edo lagapenerako prozedura, berriz, legeak eta prozeduren katalogoak kasu bakoitzerako aurreikusitakoa izanen da.

94. artikulua.–Erabilera-baimenaren edo lagapenaren baldintzak.

Doako erabilera-baimenak edo lagapenak dagozkien hitzarmenekin batera formalizatuko dira eta, baimen edo lagapenaren iraupena jasotzeaz gainera, beste hauek ere zehaztu beharko dira: lagatako higiezin edo lokalaren azalera eta egoera, erabiltzeko baldintza orokorrak, bi aldeen betebeharrak eta hitzarmena indargabetzeko kausak.

95. artikulua.–Erabilerarako baldintza orokorrak.

1. Erabilera-baimena edo lagapena onartu zaien erakundeek aurkeztutako proiektuan eta beren estatutuetakoa helburuetan alde zurretik ezarritako jarduera edo eginkizunetarako erabili beharko dituzte Iruñeko Udalak lagatzeko edo erabilera-baimena emateko izendatu dituen higiezin edo lokalak.

2. Higiezin bat erakunde bakar bati edo zenbait erakunderi laga dakieke, guztiek era partekatuan erabil dezaten. Azken kasu horretan, lagapena edo baimena formalizatzen duen bitartekoan zehaztu beharko dira lagapena edo baimena onartu zaien erakunde bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak.

96. artikulua.–Jarduera ez-baimenduak.

Berariaz galarazita daude giza eskubideak errespetatzen ez dituzten jarduerak, izaera bortitzeko edozein ekintza edo jarduera babestu eta legitimatzen dituztenak, berdintasun-printzipioaren kontra doazenak eta genero, arraza edo etnia, adin, desgaitasun, erlijio edo sinesmen eta sexu-orientazio-agatik diskriminatzen dutenak.

97. artikulua.–Harreraren formalizazioa.

1. Udalaren jabetzako lokal bat entregatzen den unean, bai erakunde hartzailearen ordezkariak eta bai Iruñeko Udalaren izenean datorrenak Higiezinaren Harrera Akta bat sinatu beharko dute, non zehaztuko den Iruñeko Udalak zer baldintzatan entregatzen duen higiezina.

2. Lokal edo higiezinean egokitzapen-obrak egin behar badira, lagapena edo baimena onartu zaion herritarren erakundeak egin ahalko ditu lan horiek, betiere, irizpide sozialak, ingurumen-jasngarritasunari lotuak eta energia-eraginkortasunekoak aintzat hartuta. Herritarren erakunde edo elkarte onuradunek ezingo dute lagatako lokal edo higiezinean inolako obrarik edo jarduketarik egin Iruñeko Udalaren alde aurreko baimenik gabe, eta beharrezkoak izanen dira, alde aurreko jakinarazpena, erantzukizunpeko adierazpena edo udal-lizentzia.

3. Era berean, toki horretan eginen diren jarduerak aurrera eramateko beharrezkoak diren gainerako udal-lizentziak edo beste baimenak ere eduki beharko dituzte.

4. Udalaren jabetzako lokal bat laga zaien edo erabilera-baimena duten erakundeek proposatu ahalko dituzte –eta haietan parte hartu ere bai– diseinurako eta eraikuntza kolektiboetarako prozesu esperimentalak, betiere, dagozkien lizentzia edo baimen guztiekin. Pertsona baimendu edo lagapen-hartzaileek egindako obrak edo jarduketak ondasun higiezinaren onurarako izanen dira, eta erakunde lagapen-hartzaile edo baimenduak ez du, lan horiek egiteagatik, inolako kalte-ordain edo konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik izanen.

98. artikulua.–Lagapen edo baimenaren jarraipena.

1. Iruñeko Udalak erabakiko du Udaleko zein pertsonak eginen duen udal-jabetzako lokal baten erabilera-baimenaren edo lagapenaren jarraipena, laga zaion edo baimena eman zaion erakunde-arekin koordinatuta.

2. Jarraipena edo segimendua sinatzen den hitzarmenean zehaztuko da eta, beste batzuen artean, zeregin hauek eskatuko ditu:

- a) Lagatako lokal edo higiezinean garatzen den proiektua ongi gauzatzen dela zaintzea.
- b) Baldintza material onenak eskaintzea proiektua ongi gara dadin.

c) Sortzen diren zailtasun edo arazoei irtenbidea ematea, beti adostasuna bilatuz eta gatazkak erkidegoan ebaztearen alde eginez.

VI. KAPITULUA

Partaidetzarako informazioa eta komunikazioa

LEHEN ATALA

Herritarren partaidetzarako informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

99. artikulua.–Webgunea, Sare Sozialak eta Herritarren Partaidetzako Alorraren plataforma digitala.

1. Udalak bere webgunea eta sare sozialak izanen ditu, non ezagutzera emanen dituen Udalarren partaidetzarako politika publikoak eta Iruñeko Udalak herritarren partaidetzarako eskura izanen dituen baliabideak.

2. Plataforma digitala Internetera konektaturiko edozein terminaletatik (ordenagailua, eskukoa, tableta edo beste gailuren bat) sarbidea duen softwareko zerbitzu multzo bat da; gailu horiek estandar teknologiko irekiak eta elkarreragingarriak jarraituko dituzte, eta ez dute legezko edo teknologiko sarbide-murrizketarik izanen gailuen artean informazio digitala trukatzeko.

3. Plataforma digitalak ahalbidetu beharko du, gutxienez, artikuluko honen 1. puntuan deskribatutako partaidetza-espazioetako ondorengo osagai guztiak konbinatu ahalko direla: proposamenak, bozketak eta/edo sostenguak, emaitzak, emaitzen jarraipena, iruzkinak, aurrez aurreko topaketak, informazio-orriak, eztabaidak, inkestak, bilatzailea, bloga eta newsletter orokorra eta selektiboa.

3. Era berean, plataformako datuak –bereziki, kontsulta masiboko edozein teknikaren bitartez sistematikoki bil daitezkeen guztiak– Open Data Commons edo Open Database lizentziekin argitaratu beharko dira, formatu estandarizatu eta irisgarrietan (CSV, JSON, edo antzekoetan.) eta, ahal den guztietan, datu horiek aztertzea edo bistaratzea errazten duten erremintak beraiekin dituztela.

100. artikulua.–Plataforma digitalerako sarbidea.

1. Udaleko gai publikoetan interesa duen edozein pertsona fisiko edo juridiko erregistra daiteke plataforma digitalean, plataforman eskatzen zaizkion datuak adierazita.

2. Erregistratuta dauden pertsona fisikoek eta, horrez gainera, deialdi bakoitzean parte hartzeko betebeharrak zehazten diren baldintzak betetzen dituztenek soilik eman diezaiekete sostengua aurkezten diren proposamenei.

VII. KAPITULUA

Herritarren erakundeen eta herritar aktiboaren Udal-errola

LEHEN ATALA

Herritarren erakundearen udal-errola

101. artikulua.–Herritarren Erakundearen Udal Erroldaren helburuak.

1. Herritarren Partaidetzaz arduratzen den Alorraren mende egongo da Herritarren Erakundearen Udal Errola.

2. Herritarren Erakundearen Udal Erroldak helburu hauek ditu:

a) Izena emandako erakundeak errekonozitzea, eta Erregelamendu honetan eta indarrean dagoen legerian aitortzen diren eskubideak baliatzeko bermea eskaintzea erakunde horiei.

b) Udalerriari eta udalari erregistraturiko erakundeen datu garrantzitsuenak ezagutzera ematea, bai eta haien kopurua, ordezkagarritasuna, haien jarduerak herritarrentzat duten interes edo baliagarritasun-maila, erakundeen gobernu-organoen osaera eta behar dituzten beste zenbait datu, lankidetzat publiko-sozialeko udal-politika zuzen bat ahalbidetzeko, gizarte-ehuna, herritar aktiboak eta boluntarioak sustatzeko eta, haien intereseko gaietan kontsultatuak izateko.

102. artikulua.–Izena eman dezaketen elkarteak edo erakundeak.

1. Elkarte, fundazio, federazio, konfederazio eta elkarte edo erakundeen batasun guztiek eman dezakete izena Herritarren Erakunde Udal Erroldan, ondorengo baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Irabazi-asmorik gabeko erakundeak izatea.
- b) Legez eratuak egotea, indarrean dagoen araudiaren arabera.
- c) Beren helbide soziala, egoitza edo ordezkaritza nagusia Iruñeko udal-barrutian edukitzea eta/edo jarduerak bertan egitea.
- d) Beren funtsezko xedea, dituzten estatutuekin eta jarduketekin bat etorritik, udalerriko herritarren interes orokorrak edo sektorialak sustatu edo hobetzeko, eta haien bizi-kalitateak hobera egiteko izatea.
- e) Iruñeko herritarren onura eta mesederako izanen diren programak eta jarduerak aurrera eramatea.
- f) Beren funtzionatzeko arauak demokratikoak izatea.

2. Izen-emateak elkarte eta erakunde interesdunek hala eskatuta egingen dira; horretarako, aurrez aurre edo elektronikoki aurkeztuko dira, eta udal-webgunean argitaratuta egongo den prozedura katalogoan zehazten den dokumentazioa ekarri beharko dute.

103. artikulua.–Eskabidearen ebazpena.

1. Izen-emateen espedienteen ebazpena herritarren partaidetza izendatuta daukan udal-alarren ardura izanen da. 30 eguneko gehieneko epearen barruan emanen da, eskabidea aurkeztu zen egunetik zenbatuta, eta beharrezko dokumentazio guztia ekarri beharko da.

2. Ebazpena erakundeari jakinaraziko zaio. Eskabidea baztertzen bada, horretarako motiboak eman beharko dira, eta onartzen bada, berriz, zer inskripzio-zenbaki duen adieraziko zaio. Ebazpenaren egunetik alta emanda geratuko da.

3. Gehieneko epea igaro baldin bada dagokion ebazpena eman eta jakinarazi gabe, ulertuko da, beste gabe, egindako eskabidea onartua izan dela.

104. artikulua.–Herritarren erakundeen datuak eta egiaztapenari buruzkoak.

1. Udalaren webgunean eta/edo Herritarren Partaidetzarako web orrian izena emanda dauden erakunde guztien zerrenda zehaztua egongo da jasota.

2. Erroldan jasota dauden datuak kontsultatu ahal izanen dira ezarritako prozedura-arauekin eta une oro datu pertsonalak babestearen inguruan indarrean dagoen araudiak aurreikusitako murrizketa guztiekin bat etorritik eta funtzio estatistiko publikoa egikatzeari buruzko araudia kontuan hartuta.

3. Erregistroko datuei buruz emandako ziurtagiriak izanen dira balio duten dokumentu bakarrak, erakundeak Udal Erroldan izena emanda daudela egiaztatze eta, hala badagokio, haien izaera ziurtatzeko.

105. artikulua.–Herritarren Erakunde Udal Erroldan izena emandako erakundeen esku-bideak eta betebeharrak.

1. Herritarren Erakunde Udal Erroldan izena emandako elkarteek eta erakundeek eskubide hauek izanen dituzte:

- a) Erregelamendu honetan herritarren erakundeentzat xedatutako eskubide guztietarako sarbidea izatea, eta herritarren partaidetza kanalizatzea bertan aurreikusitako bitartekoen bidez.
 - b) Erregelamendu honetan azaldu diren partaidetzarako espazio, prozesu eta mekanismoetara egindako deialdien informazioa jasotzea, erakundeak berak emandako gailu elektronikoan eta/edo helbide elektronikoan abisua jasota.
 - c) Iruñeko Udalak eskainitako udal-baliabide publikoetarako sarbidea izatea, erakundea bera izanik instalazioei ematen zaien tratuaren erantzule, indarrean dagoen araudiak edo Udalak berak ezartzen dituen mugekin, eta kontuan izanda beste erakunde batzuek ere baliabide beraren erabilera eska dezaketela.
 - d) Erregelamenduaren kapitulu honetan ezarritako lankidetza publiko-sozialeko eta herritarren erakundeak sostengatzeko mekanismoetarako sarbidea, erabakitzen diren lege-obligazioak beterik.
 - e) Dirulaguntzak eta beste laguntza batzuk lortzea, lankidetza publiko-sozialeko jardueretarako hitzarmen eta espazioen kudeaketarako sarbidea, udal-aurrekontuek ahalbidetzen duten neurrian, erabakitzen diren lege-obligazioak betez.
2. Izena emandako elkarte eta erakundeek honako betebeharrak hauek dituzte:
 - a) Udalari izena emateko oinarritzat erabili den dokumentazioan jasotako datuetan izandako aldaketa ororen berri ematea, aldaketak gertatu eta ondorengo hilabetearen barruan.
 - b) Udalari jakinaraztea, urteko lehen hiruhilekoaren barruan, erakundearen datuei buruzko inkesta.
 - c) Udalari bere desegitearen edo itxieraren berri ematea, gertatu osteko hilabetearen barruan.
 3. Obligazio horiek ez betetzeak Erregistroan izena emanda ez jarraitzea ekar lezake, aurrez entzunaldi-izapidea igarota.

BIGARREN ATALA

Herritar Aktiboen eta Kolektiboen Udal Errolda

106. artikulua.–Herritar Aktiboen eta Kolektiboen Udal Erregistroa.

1. Herritar Aktiboen eta Kolektiboen Udal Errolda bat egingen da, eta bertan jasoko dira partaidetza-organo, -mekanismo eta -prozesuen bitartez gai publikoetan parte hartzeko interesa duten pertsonen eta pertsona-taldeen datuak.

107. artikulua.–Herritar Aktiboen eta Kolektiboen Udal Erregistroaren helburuak.

1. Herritar Aktiboen eta Kolektiboen Udal Erregistroak honako hauek ahalbidetuko ditu:
 - a) Interesa erakutsi duten partaidetza-organo, -mekanismo eta -prozesuetara deialdia egitea pertsona eta kolektiboei.
 - b) Herritarren Partaidetza alorreko jarduketaren informazioa jasotzea.
 - c) Erregelamendu honetan «herritar aktiboei» eta kolektiboei aitortzen zaizkien eskubideak baliatzeko bermea.

108. artikulua.–Izena eman dezaketen pertsonak eta kolektiboak.

1. Herritar Aktiboen eta Kolektiboen Udal Erregistroan izena eman ahalko dute adinez nagusi diren pertsona fisikoek, beren gaitasunak erabiltzeko gauza badira, Iruñeko udalerrian erroldatuta badaude eta erregistro horretan izena eman nahi badute.

109. artikulua.–Izena emateko eskabidea.

1. Herritarren partaidetzaren ardura duen udal-alorraren mende egongo da Erregistroa.
2. Izen-emateak pertsona interesdunek hala eskatuta eginen dira; horretarako, aurrez aurre edo elektronikoki aurkeztuko dira, eta dagokion prozedura-katalogoan kasu bakoitzerako zehazten den dokumentazioa ekarri beharko dute.

VIII. KAPITULUA

*Udalerriko Onura Publikoko Erakundeen adierazpena***110. artikulua.–Udalerriko Onura Publikoko Erakundea.**

1. Herritarren Erakundeen Udal Erroldan izena emanda dauden Erakundeak, beren estatutuetako helburuak Erregelamendu honetako 72. artikuluan ezarritakoak badira, eta antzeko izaerako beste edozein erakunde, Udalerriko Onura Publikoko Erakunde deklaratu ahalko ditu Iruñeko Udalak, beren jardueri esker hiriko interes orokorraren aldeko ekarpen esanguratsua egiten dutenean.

111. artikulua.–Adierazpen-prozedura.

Udalerriko Onura Publikoko Erakunde deklaratzeko prozedura erakunde interesdunen eskariz abiatuko da: eskabide elektronikoko bat bidali beharko diote Herritarren Partaidetzaren ardura daukan udaleko alorrari eta, harekin batera, Udalaren webgunean argitaratutako prozedura honen katalogoan eskatutako dokumentazioa igorri beharko dute.

112. artikulua.–Udalerriko Onura Publikoko Erakundearen aitortza egokia den baloratzeko oinarrizko irizpideak.

1. Udalerriko Onura Publikoko Erakunde gisa aitortzea egokia izan den edo ez baloratzeko, ezinbesteko baldintza izanen da Erakundeak, eskabidea aurkeztu den datan, gutxienez bi urte jarraian eginak izatea Elkarteen eta Erakundeen Udal Erregistroan izena emanda, eta denbora horretan guztian bere datuak eguneratuta eduki izana.

2. Aurreko baldintza hori betetzen dela egiaztatu denean, deklarazioa egokia izan den edo ez baloratu ahalko da, ondorengo irizpide hauek kontuan hartuta:

- a) Erakundearen estatutuetako helburuak eta jarduerak hiriaren interes orokorraren mesedetan gauzatzea, Erregelamendu honetan jasotzen diren baldintzen barruan.

- b) Funtzionamendu eta jarduera demokratikoen bermeak.

- c) Egindako jarduerak udal-jardueren osagarri izatea.

- d) Estatutuetan dituzten helburuak betetzeko eskura dituzten bitarteko pertsonal eta materialen kopurua.

- e) Erakundearen jardueretan inplikatzeko diren boluntarioen kopurua.

- f) Udalerriko partaidetza-organo eta -prozesuetan maiz parte hartu izana.

- g) Beren estatutuen arabera obligazioak maila handian beteta edukitzea, eta hori beren jardueretan erakustea.

- h) Indarrean dauden legeen arabera kontabilitatea eta finantzaketa-iturri gardenak izatea.

- g) Nafarroako gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko 5/2018 Foru Legean araututako gardentasun obligazioak betetzea.

3. Federazioak, konfederazioak eta elkarten batasunak udalerriko onura publikokoak direla deklaratu ahal izanen dira, betiere, artikuluko honetako lehenengo bi epigrafeetan jasotzen diren bal-

dintzak betetzen badituzte, bai federazioek, konfederazioek eta elkarteen batasunek eta bai haien parte diren erakundeetako bakoitzak ere.

4. Federazio, konfederazio edo elkarteen batasun bat Udalerriko Onura Publikoko Erakunde gisa deklaratzek ez dakar, beste gabe eta aldi berean, izaera hori haien parte diren erakunde bakoitzari aitortzea.

113. artikulua.–Instrukzioa.

1. Espedientearen instrukzioan, ekarritako dokumentazioa hartuko da oinarritzat, eta hari gehitu ahalko zaizkio Erakundearen helburuekin lotura duten udaleko organo eta alorren txostenak; beharrezkoak irizten zaizkien beste zeinahi aurrekari ere erantsi ahalko dira instrukzioa.

2. Izapide horiek bideratu direnean, dagokion proposamen-txostena aurkeztuko zaio udal-organoren eskudunari, aldeztatik interesdunei entzun ostean.

3. Izen-emate eskaera ebazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa da, eskabidea, dagokion dokumentazioarekin, izapideak egiteko eta ebazteko eskumena duen organoaren erregistro elektronikoa aurkezten denetik zenbatzen hasita.

4. Epe hori igarotzen bada berariazko ebazpena eman gabe, ez dela onartu esan nahiko du.

114. artikulua.–Eskubideak.

1. Udalerriko Onura Publikoko Erakunde gisa deklaratzek Udalaren aurrean soilik izanen ditu ondorioak, eta kasu bakoitzean zehazten diren onurak izanen ditu. Horien artean, honako hauek eman daitezke:

a) Bere agiri guztietan «Udalak Onura Publikoko Erakunde gisa deklaratu» aipamena erabili ahal izatea.

b) Berariaz horrela eskatzen dutenean, entzunak izateko eskubidea Udaleko batzorde eta partaidetza-organoren guztietan.

c) Erregelamenduaren kapitulu honetan jasotako lankidetzaren publiko-sozialaren arloko eskubi-deetan aintzat hartua izatea.

d) Udal-administratibotik laguntza tekniko eta aholkularitza jasotzea.

e) Tokiko Erakundeei dagozkien Zuzenbide Publikoko zerga eta diru-sarreraren inguruan ezar litezkeen salbuespenak, hobariak eta gainerako zerga-onurak, betiere, indarrean dagoen araudian jasota dauden termino eta baldintzetan.

f) Kasu bakoitzean zehazten diren udal baliabideak eta onurak erabiltzea.

g) Udal-jabetzako lokalak eta instalazioak era puntualean erabiltzea jardueraren espezifiko bazuetarako; nolahi ere, instalazioen erabilera onaren erantzule izanen dira.

h) Lehentasuna eskura dauden udal-jabetzako lokal eta instalazioak aldi batez dohainik erabiltzeko.

115. artikulua.–Betebeharrak.

Udalerriko Onura Publikoko Erakunde deklaratzek betebeharrak hauek sortuko ditu:

a) Elkarte eta Erakundearen Udal Erregistroan ekitaldiari dagozkion urteko kontuak eman beharra, ekitaldia amaitu eta hiru hilabeteko epearen barruan. Kontu horietan Elkartearen ondarearen irudi leiala islatu beharko da, urteko aurrekontua eta likidazioa barne direla, bai eta dagokion ekitaldian edozein administratibotik jasotako dirua non eta zertan erabili den ere.

b) Erregistro horretan aurreko urtean egindako jardueraren deskripzio-memoria aurkeztea, hurrengo artikuluan jasotzen denari jarraikiz.

c) Udalari helaraztea Erakundearen bere helburuak betetzeko egindako jardueraren inguruan hark eskatzen dizkion txostenak eta dokumentazioa.

116. artikulua.–Udalerriko Onura Publikoko Erakunde izaera mantentzeko betebeharrak eta baliogabetzeko zergatiak.

1. Udalerriko Onura Publikokoak deklaratu diren Erakundeek eguneratuta eduki behar dituzte beren datuak; hala, Udal Erregistroari jakinarazi beharko dizkiote aldaketa guztiak, gertatu eta hilabeteren barruan, eta urtero, urtarrilean, urteko aurrekontuaren eta jarduera-programaren berri emanen diote Erregistroari. Era berean, urteko lehenengo hiruhilekoan, aurreko ekitaldian egindako jardueren deskripzio-memoria aurkeztu beharko dute.

2. Udalerriko Onura Publikoa aitortuta daukaten Erakundeek deklarazio hori eta horren ondoreak galduko dituzte erregelamendu honetan eskatzen zaizkien betebeharren batetik apartatzen badira edo betetzen ez badute. Baldin eta, gerora, aitorpen hori berreskuratu nahi bada, Erakunde interesdunak hutsetik hasi beharko luke prozesua berriro.

3. Udalerriko Onura Publikoko aitorpena baliogabetzeko espedientea hasteko eta ebazteko eskumena Alkatezarena edo hark eskuordetzen duenarena izanen da. Administrazio-prozedura erkidearen araudian ezarritako prozedura jarraituko da, eta, ebazpenaren aurretik, entzunaldi izapidea igaro beharko da.

117. artikulua.–Udalerriko Onura Publikoko Erakundearen adierazpena publiko egitea.

1. Udalerriko Onura Publikoko Erakundearen adierazpena ofizioz inskribatuko da Herritarren Erakundeen Udal Erregistroan.

2. Era berean, adierazpen hori egoitza elektronikoan edo Udalaren webgunean jasoko da, eta ahalik eta zabalkunde handiena emanen zaio.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehendik dauden partaidetza-organoak

Jada badauden partaidetza-organoek beren funtzioak betetzen jarraituko dute, indarrean dituzten funtzionamendu-arauen arabera, eta, aldatzen badira, erregelamendu honetako xedapenetara egokitu beharko dute.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Erregelamendu hau indarrean jarri aurretik Herritarren Elkarteek Udal Erregistroan izena emanda zeuden elkarte, erakunde, fundazio, federazio, konfederazio eta elkarte-batasunek men eginen diote aipatutako Erregelamenduari eta alta emanda jarraituko dute Herritarren Erakundeen Erroldan.

Urtebeteko epean egiaztatu beharko dute baldintza guztiak bete dituztela udalerriko onura publikoko erakundearen kalifikazioa lortzeko eta araudi honetan jasotzen diren gainerako eskubideak bere egiteko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Erregelamendu hau indarrean jartzen denean, indarrrik gabe geratuko da Iruñeko Udaleko Herritarren Partaidetzarako Erregelamendua, bai eta maila bereko edo apalagoko beste edozein xedapen ere Erregelamendu honetan xedatuari aurka egiten badio, harekin kontraesanean badago edo bateraezina bada.

AZKEN XEDAPENA

Erregelamendu honen argitalpena eta indarrean jartzea.

Erregelamendu hau bere testu osoa Nafarroako Aldizkari OfizialEAN argitaratu eta 15 eguneko epea igarotzen denean jarriko da indarrean, Nafarroako Administrazio Lokalari buruzko 6/1990 Foru Legearen 326. artikuluan aurreikusita dagoen bezala.